


Ingurumen Hezkuntzako Materialak  
Materiales de Educación Ambiental

# Urdaibaiko paisaia

DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LIBURU BERRIEN ENBILKUNTZA  
ETA INGURUMEN SAIA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

URDAIBAIKO PAISAIA

EL PAISAJE DE  
URDAIBAI

---

DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

PROPUESTA DIDÁCTICA PARA LA EDUCACIÓN OBLIGATORIA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

**Urdaibaiko paisaia** : derrigorrezko hezkuntzako proposamen didaktikoa = El paisaje de Urdaibai : propuesta didáctica para la educación obligatoria / [zuzendaritza eta koordinazioa = dirección y coordinación, Joseba Martínez Huerta] – 1. argit. = 1ª ed. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

p. ; cm. – (Ingurumen Hezkuntzako Materialak = Materiales de Educación Ambiental)

ISBN 84-457-2129-1

1. Educación ambiental-Didáctica. 2. Reserva de la Biosfera de Urdaibai-Descripción. I. Martínez Huerta, Joseba. II. Euskadi. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. III. Título: El paisaje de Urdaibai. IV. Serie.

504:37.02

502.72(460.152 Urdaibai)

#### Zuzendaritza eta koordinazioa / Dirección y coordinación:

Joseba Martínez Huerta. CEIDA Urdaibai

#### Urdaibaiko pasaiari buruzko mintegia / Seminario de Paisaje. Urdaibai

Mirari Aldana Amunategi IES Mungia BHI. Miren Nekane Arrondo Mendiolagaray **Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa** / Centro Experim. Escolar Pedernales. José Luis Bardón García CEP Montorre LHI (Gautegiz Arteaga). María Paz Chertudi Llona CEP Legarda Alde LHI (Mungia). Mirari Cuende Legarra San Fidel Ikastola (Gernika). Xabier Etxeandia Eizagirre San Fidel Ikastola (Gernika). María Luz Mandaluniz Olabariaga **Mertzedeko Ikastetxea** / Co. Sta. M<sup>a</sup> del Socorro (Gernika). Juan Carlos Navarro Garechana CEP San Antonio LHI (Etxebarri). Beatriz Zorroza Hormaechea **Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa** / Centro Experimentación Escolar Pedernales.

#### Laguntzaileak / Colaboración

Marisa Apraiz Bilbao **Mertzedeko Ikastetxe** / Co. Sta. M<sup>a</sup> del Socorro (Gernika). Gloria Aranburu Apraiz IES Ignacio Arocena BHI (Bermeo). Ana María Astelarra Guezuraga CEP Legarda Alde LHI (Mungia). Idoia Bazako Lekosais IES Ignacio Arocena BHI (Bermeo). Miren Lorea Etxeandia Orueta CEP Maestra Emilia Zuza LHI (Santurtzi). Rodolfo Etxeandia Orueta CEP Legarda Alde LHI (Mungia). Jesús María Goicolea Guezuraga Seber Altube Ikastola (Gernika). Unax Irazabal Olarreta IES Durango BHI.

Argitaraldia: 1a. 2004ko abustua

Edición: 1ª. agosto 2004

Ale kopurua: 1.000

Tirada: 1.000 ejemplares

©

[Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa](#)

[Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila](#)

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Argitaratzailea / Edita: [Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia](#)

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Itzulpena / Traducción: [Ana Santos Elortza](#)

Irudiak / Ilustraciones: [Julio García](#)

Diseinua / Diseño: [Expresión](#)

Inprimaketa / Impresión: [Composiciones Rali, S.A. - Bilbao](#)

ISBN: 84-457-2129-1

L. G. / D. L. BI-2082-04

# URDAIBAIKO PAISAIA

---

DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

# Aurkezpena

---

Paisaia gizartearen eta berori bizi den ingurunearen arteko harremanak islatzen dituen «liburu irekia» da. Paisaian, batetik, giza taldeak euren ingurunera egokitzeke erabili dituzten baliabideen frogak aurkitzen ditugu. Adibidez, etxebizitza mota, lurraldeko banaketa eta populatze-erak. Bestetik, gizartearen gaitasun teknologikoak eraldatu eta gizatartu egin du ingurunea, eta aldaketa horiek ere bistakoak dira paisaian. Izan ere, aldaketa horien azterketak gizakion ekintzak eta berorren ondorioak erakusteko aukera eskaintzen digu.

Horregatik, paisaia oso bitarteko garrantzitsua da lurraldea nola erabiltzen dugun ikertzeko eta, ikerketa horretan oinarriturik, egunero bizi dugun errealitatearekin loturiko ingurumen hezkuntza garatzeko. Horrela, zalantzarik gabe, bizi gareneko gizartea hobeto samar ulertuko dugu eta ingurunearekiko gure harremana planteatu ahal izango dugu.

Oraingoan aurkezten dugun karpeta interes handiko material didaktikoa da. Hemen azaldutako mintzagaia derrigorrezko hezkuntzako ziklo bakoitzean lantzeko jarraibideak eta proposamen zehatzak eskaintzen ditu, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarrenean gauzatzekeak. Gainera, irakasle talde batek, hiru ikasturtetan zehar, prestakuntza eta saiakuntza prozesua garatu duteneko lan mintegiaren emaitza da. Horrek balio erantsia dakarkio materialari, bere baliagarritasuna bermatu egiten duelarik.

**SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL**

LURRALDE ANTOLAMENDU

ETA INGURUMEN SAILBURUA

Bestalde, aipatu behar da lan proposamenak Urdaibaiko Erreserban garatzen diren arren, erabilita-ko metodologia eta lan materialak edozein lurraldetan aplikatzeko egokiak direla.

# Aurkibidea



## 1. SARRERA

1.1. Aldez aurreko oharrak	9
1.2. Paisaiari buruzko ideia	10
1.3. Paisaia ingurumen hezkuntzarako baliabidea den aldetik	10
1.4. Espazioa, lurraldea eta paisaia	11
1.5. Nola landu paisaia?	11
1.6. Behatokiak	15
1.7. Nola planteatu ebaluazioa?	16
1.8. Bibliografia	17

## PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

### 2. PAISAIA GAUDE

PAISAIA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOAN.	23
A. Hasi baino lehen	23
B. Lan proposamena. Jarduerak	24

### 3. PAISAIA BIZITZEN.

PAISAIA LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN.	29
A. Hasi baino lehen	29
B. Lan proposamena. Jarduerak	30

### 4. PAISAIA IRAKURTZEN.

PAISAIA LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOAN	39
A. Hasi baino lehen	39
B. Lan proposamena. Jarduerak	40

### 5. PAISAIA AZTERTZEN.

PAISAIA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOAN	47
A. Hasi baino lehen	47
B. Lan proposamena. Jarduerak	48

### 6. PAISAIA BALORATZEN.

PAISAIA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN	57
A. Hasi baino lehen	57
B. Lan proposamena. Jarduerak	58

## LAN FITXAK ETA MATERIAL OSAGARRIA

7. LAN FITXAK	65
8. MATERIAL OSAGARRIA	95
1. Diapositibak eta Gardenkiak	97
2. Estatistikak	98
3. Jokoak eta Grabaketak	99
4. Laminak eta Argazkiak	100
5. Mapak eta Planoak	101

# 1. Sarrera



# Sarrera



## 1.1.

### ALDEZ AURREKO OHARRAK

#### 1.1.1. Urdaibaiko paisaiari buruzko mintegia

Mintegi hau antolatzeko ideia bururatu zitzaigunean, argi ikusten genituen gauza bi: batetik, ingurumen hezkuntzaren arloan egin nahi genuen lanak baliagarria izan behar zuen bai bertan parte hartzen genuenontzat, bai gainerako irakasleentzat eta, bestetik, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren esparruan egin nahi genuen. Mintegia, prestakuntzarako bide gisa ez ezik, taxututako jarduera eta materialen bidez Urdaibaiko bertako ingurumen hezkuntza sustatzeko tresnatzat ere hartzen genuen.

Abiapuntuko bi ideia horiek aintzat hartuta, hainbat arrazoik bultzatu gintuen paisaia gure lanaren erdigune bihurtzera:

- Paisai aniztasuna Urdaibaik dituen gotorleku eta aukera handietako bat da.
- Paisaia, jakintzagai anitz ukitzen dituen bere izaera integratzaileagatik eta natur ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertze bide ematen duelako, baliabide ahaltsua da ingurumen hezkuntzarako.
- Zentzumenen bidezko pertzepzioan oinarrituriko lana egiteko aukera ematen du; beraz, edozein adinetarako egokitu ahal da.
- Sentimenduak ukitzen ditu, afektuzko alderdiak lantzea ahalbidetzen duena.
- Ingurune giza ekintzarekin zerikusia duten jarrerak eta balioak sustatzeko aukera ematen du.

Urdaibaiko CEIDAK koordinatu duen mintegi honen lana hiru ikasturtetan zehar garatu da. Tarte horretan, lan taldeak zabalik izan ditu ateak gai honekiko interesa zuten irakasle guztiek parte hartu ahal izateko. Erreferentzia beti Urdaibai izan bada ere, euren lan profesionala Biosferaren Erreserbaren eremu geografikoaren barruan zein horretatik at garatzen duten pertsonak hartu dute parte bertan.

Egindako lana, besteak beste, dauden materialak aztertze bide, material berriak taxutu eta esperimentatzeko eta alternatibak eztabaidatzeko ikerketa eta gogoeta prozesuan oinarritu da. Batez ere, berdinen arteko elkartruke prozesua izan da, taldetik kanpoko adituen ekarpenei uko egin gabe prestakuntza horizontala garatu duena, hainbat material didaktiko sortzeaz gain.

#### 1.1.2. Proposamena

Goian aurreratu bezala, eskuartean duzun argitalpen hau mintegiak hiru ikasturtetan zehar egindako gogoeten eta lanaren emaitza da. Bertan derrigorrezko hezkuntzako ziklo bakoitzean, hau da, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bietan, paisaia lantzeko proposamen segida eskaintzen da.

Aurkeztutako materiala zortzi multzotan sailkatu dago:

1. SARRERA.
2. PAISAIAN GAUDE.  
Paisaia Lehen Hezkuntzako 1. Zikloan.
3. PAISAIA BIZITZEN.  
Paisaia Lehen Hezkuntzako 2. Zikloan.
4. PAISAIA IRAKURTZEN.  
Paisaia Lehen Hezkuntzako 3. Zikloan.
5. PAISAIA AZTERTZEN.  
Paisaia DBHko 1. Zikloan.
6. PAISAIA BALORATZEN.  
Paisaia DBHko 2. Zikloan
7. LAN FITXAK.
8. MATERIAL OSAGARRIA.

*Sarreran* paisaiaz dugun ikusmoldeari buruzko ohar batzuk eta zenbait orientabide didaktiko labur aurkezten ditugu, bai eta oinarritzko bibliografia ere, gaia sakonkiago aztertu nahi duenarentzat.

Ondorengo *bost kapituluetan ziklo bakoitzerako unitate didaktiko* txiki bat dago, landa-irteera batean oinarritua. Unitate bakoitzean, halaber, bi zati bereizten dira.

Lehenengoan (*A. Hasi baino lehen*), Curriculum *lotura* agertzen da, hau da, ziklo bakoitzari dagozkion edukiak, Oinarritzko Curriculum Diseinua eta jorratzen ari garen gaia kontuan harturik. Era berean, lortu nahi ditugun *lehentasunezko helburuak* eta ziklo bakoitzerako landa-lana egiteko iradokitzen den *behakokia* aurkezten dira.

Ondorengo atalean, «*B. Lan proposamena. Jarduerak*», iradokitzen diren lan prozesua eta jarduerak deskribatzen dira.

*7. multzoan, Lan fitxak*, hainbat baliabide eskaintzen dugu fotokopiatu ahal diren fitxetan, ikasleek zuzenean erabili ahal izan ditzaten. Fitxek ziklo bakoitzerako proposatutako jarduerak garatzeko xedea dute eta zenbakiturik daude, errazago sailkatu eta identifikatu ahal izateko.



Horiez gain, badira beste material batzuk ere (diapositibak, laminak...), jasotako proposamenak garatzeko baliagarriak diren arren, argitalpen honetan bildu ez direnak, hain kopuru handitan erreproduzitzeko zailtasuna eta garestitasuna direla eta. Baliabide horiek *Material Osagarrien Maletan* bildu dira eta horren kopia CEIDAn egongo dira, eskuratu nahi dituzten irakasleei mailegatzeko xedez. 8. atalean, *Material osagarria*, baliabide horien deskribapena aurkezten da, irakasleek eskaintzen denari buruzko ideia zehatza izan dezaten.

### 1.1.3. Material hau nola erabili

Paisaiarekin loturiko eduki asko hezkuntzako etapa eta ziklo bat baino gehiagotan landu ahal dira. Are gehiago, komeni da alderdi guztiak ziklikoki tratatzea, azterketaren eta proposamenen zailtasuna pixkanaka areagotuz. Hortaz, «*tratamendu kiribila*» esan beharko genioke, alderdi berberetara itzultzen garen arren, areagotuz baitoaz beraien sakontasuna eta lantzeko moduaren konplexutasuna.

Beraz, ziklo zehatz baterako aurkezten diren proposamen eta materialek beste ziklo baterako ere balio ahal dute, edo erraz molda daitezke horretarako. Horregatik, komeni da material guztia gainbegiratzeari, beste ziklo batzuetan ere aurkitu ahal ditugulako lantzen ari garen mailarako ideiak.

Eskaintza *landa-irteeraren* inguruan antolatzen da eta ziklo bakoitzean *hiru aldi* bereizten dira beti: *irteeraren aurrekoa*, *bitartekoa* eta *ondorengoa*. Aldi horietako bakoitzak saio bat edo gehiago bildu ahal du eta hainbat jardura proposatzen dira horietarako. Iradokitako denborak orientagarriak dira, taldearen, interesen eta inguruabar zehatzen arabera nabarmenki aldatu ahal dira eta. Irakasleren batek pentsa lezake prozesu osoa garatzeak berak paisaia aztertzeko zehaztu duena baino denbora luzeagoa eskatzen duela. Bakoitzak askatasun osoz hautatu ahal ditu egoki deritzen jarduerak eta proposamena bere programaziorako egokitu. Hala ere, gogoan izan behar dugu paisaia «aitzakia» ona dela beste gai batzuk landu edo horietara hurbiltzeko. Horrez gain, proposatutako jardueretako askok bestelako eduki batzuk lantzeko ere balio ahal dute, bere horretan nahiz egokitzapen erraz batzuk eginda.

Proposamenen oinarria Urdaibaiko Biosferaren Erreserba bada ere, argi utzi behar dugu edozein toki dela egokia paisaia lantzeko, aparteko eszenatokirik bilatu beharrik gabe. Garrantzitsuena lan metodoa, aurrean dugun ingurunea interpretatzen eta ulertzen ikastea eta bera gestionatzen duen gizartean eragitea da.

Metodologiari dagokionez, aipatu behar da paisaiaren azterketa jakintzagai anitzeko ataza dela ezinbestez, arlo bat baino gehiagori dagozkion edukiak eta prozedurak biltzen dituelako. Horrez gain, landalanean, hainbat material eta tresnaren manipulazioan (mapak, maketa, iparrorratza...) eta hainbat informazio iturriren azterketan (ahozko iturriak, testuak, argazkiak, antzinako grabatuak...) oinarritu behar da.



## 1.2.

### PAISAIARI BURUZKO IDEIA

Paisaia modan dagoela esan genezake. Publizitatea gainetik ikusi besterik ez dago, paisaiak «saldu egiten duela», balio erantsia dela, konturatzeko. Gero eta nabarmentasun handiagoa du arlo ekonomiko eta komertzialean.

Ikuspuntu didaktikotik, «arrakasta hori» aprobetxatuz, bizi garen gizartea hobeto ulertu eta ingurunearekiko geure harremanaren gaineko gogoeta egiteko erabili ahal dugu paisaiaren azterketa.

Paisaiari buruzko egungo ikusmoldeak Errenazimenduan eratutako ikuspuntuaren eragin nabarmena du. Garai horretako irudikapenetan maiz azaltzen dira leiho batetik (marko laukizuzena) ikusitako lurralde baten perspektiba. Zalantzarik gabe, paisaiari buruzko irudi ohikoena bista panoramiko atsegin batekin loturikoa da, normalean natur edo landa ingurukoa. Hala ere, ideia hori partziala eta subjektiboa da. Gehiegi pentsatu behar izan gabe, jende askoren eguneroko paisaia, postaletako irudi idilikoekin baino, hondamen maila ezberdinak ager ditzakeen hiri inguru batekin loturik dago. Beraz, hauxe da didaktikaren ikuspuntutik aintzat hartu beharreko lehenengo irizpidea: inguru metropolitarrak bateko paisaia Parke Natural batean goza daitekeena bezain interesgarria edo interesgarriagoa dela.

Horregatik, topikoa gainditu eta paisaia kontzeptua zabaldu egin behar dugu, ingurunearen eta bertan bizi den gizartearen elkarrekintzaren emaitza gisa ulertu ahal izateko. Izan ere, paisaia definitzean, naturaren, teknikaren eta kulturaren arteko elkarrekintzaren ondoriozkoa den eta zentzumenez suma daitekeen adierazpena dela esan daiteke (Busquets, 1999).

## 1.3.

### PAISAIA INGURUMEN HEZKUNTZARAKO BALIABIDEA DEN ALDETIK

Paisaia ingurumen hezkuntzarako baliabide baliotsua da, komunitate batek bere ingurunearekin dituen

erlazioak irakurri eta interpretatzeko aukera ematen digun *liburu irekia* delako.

Alde batetik, gizartearen kulturaren zati bat ingurunera-ko egokitzapenaren emaitza da eta horrelaxe islatzen da paisaian, populazio mota, laborantza metodo, etxebizitza mota eta abarren gaineko testigantza legez. Bestalde, gizartearen gaitasun teknologikoak ingurunea eraldatu eta gizatartu egin du. Paisaiaren azterketak ekintza horren ondoreak eta sor ditzakeen arazoak ikusteko aukera ematen du.

Beraz, paisaia aztertzean, pertzepzioarekin eta balio estetikoekin loturiko alderdiez gain, beraren osagaien arteko elkarrekintza, ingurunearen egokitzapen eta eraldakuntza moduak, giza jardueren ingurumen eragina eta paisaiaren izaera dinamikoa ere ikusi ahal ditugu.

Paisaiaren azterketaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat, ingurumen hezkuntzaren planteamenduekin bat datorrena, diziplina arteko izaera da, ikasleengan konplexutasun eta elkarrekiko menpetasun nozioak garatzen laguntzen duena, errealitateari buruzko azalpen mekanikoetan oinarritutako eskema murrizgarriak gaituz.

Bestalde, pertzepzioaren subjektibotasunak, sentimenduek eta balorazio eta jarrera pertsonalek baldintzatu egiten dute paisaiaren irakurketa eta eragina dute berarekin ditugun bizi-harremanetan.

#### 1.4. ESPAZIOA, LURRALDEA ETA PAISAIA


Espazioa, lurraldea eta paisaia elkarrekiko lotura estua duten hiru kontzeptu dira. Interesgarria da hirurak kontuan hartzea gure azterlanerako egin ahal ditugun ondorioztapen didaktikoengatik.

Milton Santos-en ikuspuntuarekin bat, paisaia «behatoki jakin batetik begiez hauteman ditzakegun osagai guztien multzoa da».

Ikuspegia zabalduz gero, lurralde itxuraketaz ohartuko gara, hau da, «lurralde jakin batean dauden osagai guztien multzoaz, agerikoak nahiz ezkutukoak izan» (Milton Santos, 1996).

Definizio horietatik ondoriozta daitekeenez, paisaia, lurraldearen atala delarik, bide egokia da horren azterketa hasteko, komunitate batek bere inguruarekin izan dituen eta dituen harremanen, lanaren eta historiaren ondoriozkoa eta zentzumenez sumagarria den errealitatea aurkezten digulako.

Hala ere, espazio zehatz bat aztertzean, Urdaibai kasu, kontuan izan behar dugu lurralde horretan ezin ikus daitezkeen osagaiak ere badaudela, paisaiaren zuzeneko behaketaz ezin azter ditzakegunak. Hortaz, «ezkutuko paisaia» aipa dezakegu, hots, «ilundurik» daudelako ikusten ez ditugun arren, egon badauden osagaiak. Hortixe dator bestelako infor-



mazio iturri osagarriak –mapak, maketak, argazkiak, testuak...– erabili beharra.

Azkenik, espazioa «osagai lekutuak (finkoek), osagai mugikorrek (fluxuek) eta horien arteko erlazioek eratutako multzo banaezina» litzateke. Beraz, ez ditugu ahaztu behar osagai mugikorrek eta osagai guztien artean eratzen diren erlazioak eta fluxuak.

Ingurumen hezkuntzaren ikuspuntutik, alderdi horiek garrantzi berezia dute, zuzenean ezin ikus badaitezke ere, ikusten dugunaren «atzean» dauden alderdi batzuetara hurbiltzea ahalbidetzen digutelako, hala nola lurraldearen antolamendura eta ingurumen gestiora, etorkizunean ikusiko duguna nolabait zehazten dutenak.

#### 1.5. NOLA LANDU PAISAIA?

##### 1.5.1. Lana antolatzeko giltza batzuk

Proposatzen dugun lan prozesua lau unereren inguruan taxutu da funtsean: sentitzea, ezagutu eta erlazioztatzea, adieraztea eta ekitea. Horietako bakoitzari buruz ere, jarduerak antolatzeko eta garatu beharreko trebetasunak zehazteko funtsezkoak diren beste ideia edo kontzeptu batzuk ere aipa ditzakegu. 1. Taulan, laburturik azaltzen dira urrats bakoitzerako proposatutako giltzak eta trebetasunak.

Hala ere, argi izan behar dugu markatu ditugun mugak eta uneak errealitatean zirriborratuta eta nahasirik agertzen direla. Beraz, ezin ditugu bereiziriko ataltzat hartu, prozesua orientatzeko eta, aurrera goazen heinean, arreta non ipini iradokitze irizpidetzat baizik.



## 1. TAULA PAISAIAREN LANKETA ANTOLATZEKO GILTZAK

UNEA	GILTZAK	TREBETASUNAK
SENTITU	SENTSAZIOAK EMOZIOAK	<b>Sumatu eta bizi:</b> zentzumenezko pertzepzioa da paisaiara hurbildu eta bertan «murgiltzeko» modua. Horrek emozio batzuk sorrarazten dizkigu: atsegina, ezatsegina, babesa, abentura... garrantzitsua da paisaiaren alderdi subjektiboak ere lantzea.
EZAGUTU ETA ERLAZIONATU	ANTZEKOTASUNA EZBERDINTASUNA	<b>Identifikatu, erkatu eta sailkatu:</b> paisaiak eta osagaiak, zuzeneko behaketaz, argazkiez nahiz beste baliabide batzuek.
	FLUXUAK - ERLAZIOAK	<b>Erlazionatu:</b> paisaia-unitateak, osagaiak...
	ALDAKETA JARRAITASUNA	<b>Epeldiak zehaztu:</b> paisaiaren denborazko izaera dinamiko eta historikoa izango ditugu kontuan.
	ZERGATIAK ONDORIOAK	<b>Hipotesiak formulatu eta egiaztatu:</b> zergatik dago hor?, zergatik dago horrela? Hipotesiak hainbat iturri erabiliz egiaztatu behar dira: dokumentuak, elkarrizketak...
	GATAZKA ADOSTASUNA	<b>Egiaztatu eta alternatibak bilatu:</b> eraginak detektatu, ikur eta mezuak interpretatu. Paisaiaren osagai batzuek argibideak ematen dizkigute: herrilanak, kartelak, pintadak... Arazoen inguruan dauden interesak eta ikuspuntuak aztertu. Rol jokoak horretarako bitarteko egokia izaten dira.
ADIERAZI	JARRERAK BALIOAK	<b>Agerarazi eta alderatu:</b> eztabaida eta iritzi trukaketa, simulazio jolasak...
	KOMUNIKAZIOA ADIERAZPENA	<b>Adierazi eta baloratu</b> (hainbat bitarteko eta teknika erabiliz).
EKIN	PARTE-HARTZEA EKINTZA	<b>Erabakiak hartu eta ekin:</b> eta guk zer? Jarrerak, portaerak konpromisoak eta abar landuko ditugu.

### 1.5.2. Segida didaktikoa

2.Taulan, paisaiari buruzko lana Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetan zehar garatzeko proposatutako sekuentzia didaktikoa azaltzen da.

Prozesuan bereizi ditugun sei *aldietako* bakoitzari buruz, zehaztutako *interesgunea* eta lortu nahi ditugun *helburuen* eta horretarako erabiliko ditugun *prozeduren* laburpena azaltzen dira.

Bigarren Hezkuntzan prozesu osoa burutu ahal izango dugu; Lehen Hezkuntzan, berriz, lehenengo hirurei ekingo diegu eta intuitiboki hurbilduko gara gainerakoetara.



2. TAULA  
PAISAIA LANTZEKO SEGIDA DIDAKTIKOA



FASEA	1. PERZEPZIOA	2. BEHAKETA	3. ANALISIA	4. DIAGNOSTIKOA	5. KUDEAKETA	6. DISEINUA
INTERES-GUNEAK	Sentzazioak	Paisaien aniztasuna	Paisaiaren denbora eta historiaren dimentsioa	Paisaia sistema konplexu gisa	Paisaiaren kudeaketa eta legedia	Paisaiaren diseinua eta planifikazioa
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Zentzumenen bidez harremanean jartzea.</li> <li>■ Elementuen aniztasuna aurkitzea.</li> <li>■ Gu ere paisaian gaudela eta bertan eragina dugula konturatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Elementuen tipologiez konturatzea.</li> <li>■ «Paisaia-unitateak» identifikatzea.</li> <li>■ Elementuen arteko erlazioez ohartzea.</li> <li>■ Paisaiaren aldaketek ohartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Elementuen arteko erlazioak identifikatzea.</li> <li>■ Elementu adierazgarrienak identifikatzea.</li> <li>■ Paisaien arteko konparaketak egitea.</li> <li>■ Paisaiaren «irakurketa».</li> <li>■ Gizakiaiek sortutako aldaketa ezberdinen balorazioa hurbiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Paisaien dinamika ulertzea.</li> <li>■ Paisaiaren irakurketa historikoa egitea.</li> <li>■ Inpaktu batzuk aztertzea eta alternatibak planteatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Inpaktuak eta neurri zuzentzaileak baloratzea.</li> <li>■ Lurraldearen erabilerera eta paisaiaren arteko harremanak aztertzea.</li> <li>■ Paisaiaren kudeaketan eragina duten egileak identifikatzea eta beraien funtzioak aztertzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Egoera konkretu bat baloratu eta jarraera hartzea.</li> <li>■ Paisaiaren diseinua eta planifikazioaren oinarriak ezagutzea eta aplikatzea.</li> </ul>
PROZEDURAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Zentzumen behaketa.</li> <li>■ Paisaiaren adierazpen librea.</li> <li>■ Orientazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Behaketa zuzena.</li> <li>■ Elementuen identifikazioa.</li> <li>■ Elementuen sailkapena</li> <li>■ tipologiaren arabera.</li> <li>■ «Paisai unitateen» identifikazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Paisaiaren krokisa.</li> <li>■ Mapa topografikoaren erabilpena.</li> <li>■ Maketen eraikuntza.</li> <li>■ Erregistro historikoaren erabilpena (testuak, irudiak, argazkiak...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Tokiko krokisa.</li> <li>■ Airetiko argazkia.</li> <li>■ Estereoskopioaren erabilpena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Informazio iturri ezberdinen kontrastea.</li> <li>■ Mapa tematikoen erabilpena.</li> <li>■ Paisaiaren kartografia .</li> <li>■ Simulazioak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Paisaiaren balorazioa.</li> <li>■ Paisaiaren azterketa semiotikoa.</li> <li>■ Kudeaketa planen simulazioa.</li> </ul>

### 1.5.3. Fokatze kontua

Paisaia gizartearen eta horren inguruaren artean eratzen diren erlazioen ondorioak islatuz doazen «liburua» delarik, aurkezten zaigun errealtitatea «irakurtzen» (interpretatzen) ikasi behar dugu, etorkizunerako erabili ahal diren alternatibak aurkitu eta gizabako edo gizarte talde legez dugun jarrera finkatu ahal izateko.

Paisaiaren lanketak gauza asko planteatzea ahalbidetzen digu (natur ingurua, gizartea, ekonomia, historia, etab.)

eta, gainera, era integratuan aztertu, bata bestearekin loturik eta bakoitza bere errealtatean -bere ingurunean- kokaturik ulertu ahal izateko. Baina, horrez gain, ikuspegi orokorra eta errealtate orokor hori osatzen duen alderdi bakoitzaren zatikako tratamenduak bateratzeko aukera ere ematen digu. Alegia, «zoom efektu» moduko bat da, panoramika orokorra ikusi eta, ondoren, bertako osagaietarik gehien interesatzen zaizkigunak fokatzea ahalbidetzen diguna.

### 1.5.4. Landa-irteera

Errealtatearen zuzeneko behaketa ahitu ezinezko informazio iturria da; beraz, ez dago paisaia aztertzetik landa-lanik gabe.

Paisaiaren azterketak zuzeneko behaketarako eskaintzen dizkigun aukerengatik, hain zuzen ere, irteera baten inguruan egituratu dugu hezkuntza ziklo bakoitzerako proposamena. Agidanez, horren ahalbide guztiak aprobetxatu nahi baditugu, behar bezala prestatu eta antolatu beharko ditugu landa-lanaren *aurretik, bitartean eta ondoren* egingo diren jarduerak.

Ondoren, lan prozesua garatzeko *eskema orokorra* eskaintzen dugu, geroago ziklo bakoitzerako zehaztuko dena:

#### 1. Irteera prestatzen

- Lekua aukeratu.
- Motibazioa eta aurretiazko ideiak.
- Prozeduren lanketa.

#### 2. Irteera

- Paisaiaren pertzepzioa.
- Irakurketa eta interpretazioa:



- Osagaien identifikazioa eta sailkapena.
- Osagaien arteko erlazioak. Fluxuak.
- Aldaketak. Bilakaera.
- Gizakiaren ekintza. Eragina.
- Paisaiaren balorazioa.

### 3. Irteeraren ostean

- Informazioaren antolaketa eta bateratze lana.
- Deskribapena, erkaketa eta irudikapena.
- Komunikazioa.
- Ekintza.

### 1.5.5. Mapen erabilera

Gorago esan bezala, zuzeneko behaketaz gain, beste informazio iturri batzuk ere erabiliko ditugu. Osotuenetako bat mapa da. Mapak gure lanerako oso baliagarria den informazio osagarria eskaintzen digu.

Adibidez:

- Errealtateari zuzenean begiratuz ezin eskura dezakegun informazioa (ezkutuko guneak)
- Irudikaturiko lurralde osoa agertzen da.
- Eskala jakin batean -eta maparen azalera osoan berberean- irudikatzen du lurraldea. Zuzeneko behaketan eskalak degradaturik sumatzen dira, behaketa puntuaren arabera.
- Ikuspegi bertikala eskaintzen du, errealtatearen behaketak ematen digun ikuspegi zeharraren osagarria dena.

Hortaz, mapen erabilpena eta paisaiaren zuzeneko behaketa aztertu nahi dugun errealtatea zehaztasun handiagoz interpretatzen laguntzen diguten prozedura osagarriak dira.




## 1.7.

## NOLA PLANTEATU EBALUAZIOA?

Ikuspegi orokorrean, ebaluaketaren inguruan zalan-  
tzak sortzen dira beti, eta eztabaidak ere izaten dira.  
Hauta daitezkeen aukerak asko dira, norberak zein  
taldeak hartzen dituen jarreraren arabera.

Hala ere, bada nolabaiteko adostasuna ingurumen  
hezkuntzan ebaluaketa, batez ere, hezkuntzazko  
prozesu kualitatiboa dela baieztatzean. Ezin liteke  
bestela izan, helburua fenomenoak euren konplexu-  
tasun eta osotasunean aztertu eta ulertzea baita,  
prozesua hobetu eta erabakiak hartzen laguntzeko-  
tan.

Egiten dugun proposamenean, hainbat jarduera ikas-  
kuntza nahiz ebaluaketa egoeretan erabil daitezke  
ziklo bakoitzean, izan ere, ebaluaketa, berez, ikas-  
kuntza prozesuko beste une bat da. Edonola ere,



unitate bakoitzean, ebaluaketa egiteko berariaz erabil  
daitezkeen jarduera bat aipatzen da.

Horretan, batez ere, planteatutako ikaskuntza proze-  
suari dagokionez taldearen egoera nolakoa den jaki-  
tea da gure asmoa eta, bide batez, euren bizipen eta  
sentipenak eta emandako aurrerapausoak adierazte-  
ko aukera ematen diegu.



## 1.8. BIBLIOGRAFIA

- **Aldai, P. eta Ormaetxea, O.** (1998).  
*Urdaibai, Reserva de la Biosfera. Guía histórica del medio humano y el paisaje.*  
Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- **Ayerbe, E.** (Zuz.) (1994).  
*Euskal Herria en sus paisajes.*  
Donostia: Etor.
- **Bharat, J.** (1982).  
*Vivir la naturaleza con los niños.*  
Bartzelona: Ediciones 29.
- **Benayas, J.** (Koord.) (1994).  
*Viviendo el paisaje.*  
*Guía didáctica para interpretar y actuar sobre el paisaje.*  
Madrid: Fundación NatWest- FIDA.
- **Busquets, J.** (1993).  
*La lectura e interpretación del paisaje en la enseñanza obligatoria.*  
Aula, 19, 42-45.
- **Busquets, J.** (1999).  
*Fundamentos teóricos para una didáctica del paisaje.* «Paisajea Urdaibain». Ikastaroan.  
Gernika, 1999ko martxoan. (Argitaragabea).
- **Díez Salinas, M. eta Valverde, M.** (1997).  
*Urdaibairi buruzko Minigida. Urdaibaiko azterlari txiki-entzako behaketa-koaderno.*  
Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia-Unesco Etxea.
- **El Mundo del Siglo XXI.** (1999).  
*Urdaibai. Parques Nacionales y Espacios Protegidos, 17.*  
Madrid. El Mundo.
- **EUSTAT.** (Zuz.) (1996).  
*Euskal Aeko gaikako atlas estatistikoa / Atlas temático estadístico de la C.A. de Euskadi.*  
Vitoria-Gasteiz: EUSTAT.
- **Franquesa, T.** (Zuz.) (1996).  
*Hábitat. Guía de actividades para la educación ambiental.*  
Madrid: Ministerio de Medio Ambiente.
- **Eusko Jaurlaritza.** (1997).  
*Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Ingurugiroaren Interpretazio, Ikerketa eta Hezkuntzako Erabilera Egitamua / Plan de Manejo para la Interpretación, Investigación y Educación Ambiental de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.*  
Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- **Gondra y Oraá, M. V.** (1990).  
*Busturiako monografía . Eleizaldea eta Merindadea. / Monografía de Busturia. Anteiglesia y Merindad.*  
Madrid: Beramar.
- **Hernández, R. eta Caño A.** (1999).  
*Urdaibai.*  
Bilbao: Bilbao Bizkaia Kutxa.
- **Larrauri, J.** (Koord.) SESZ. (1996).  
*50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegitik ikertzeko / 50 propuestas para estudiar el bosque desde la perspectiva ambiental.*  
BBK-Eusko Jaurlaritza (Karpeta didaktikoa).
- **López Isarría, J. A.** (1995).  
*Interpretar un paisaje.*  
Madrid: Alhambra Longman.
- **Luna, F. eta Martinez, J.** (Koord.).  
**Ingurugiro Mintegia** (Datarik gabe)  
*Basauri goitik begira.*  
Basauriko PAT/COP.
- **Malumbres, J. M.** (datarik gabe):  
*Bizi lur. Biotxuren joko haundia / Tierra viva. El gran juego de Biotxu.*  
Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
(Partaidetzako puzzlea).
- **Milton Santos** (1996).  
*Metamorfosis del espacio habitado.*  
Bartzelona: Oikos Tau.
- **Michel, R.; Boulanger, J.; Mainé, M. C.; Pequeux, J.; Ploquin, G.; Dizier, P.** (1978).  
*Juegos y actividades a la orilla del mar.*  
Bartzelona: Vilamala.
- **Otamendi, J. J.** (Zuz.) (1998).  
*Atlas temático del medio físico del Territorio Histórico de Bizkaia.*  
Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- **San Martín, A.; Sanz, E.; Urbina, J. A. y Caño, A.** (1998).  
*Taller de investigación histórico-geográfico / Historiaren eta geografiaren ikerketarako tailerra, 47.*  
Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- **Taylor, J. L.** (1993).  
*Guía de simulación y de juegos para la educación ambiental.*  
Madrid: Los libros de la catarata-Eusko Jaurlaritza.
- **Yustos, J. L. y Cantero, A.** (1997).  
*Educación ambiental para el desarrollo sostenible, Vol. 7.*  
Madrid: Ministerio de Medio Ambiente.
- **Zenbait egile.** (1992).  
*Guía para la elaboración de estudios del medio físico. Contenido y metodología.*  
Madrid: MOPT.



# Proposamen didaktikoa





# Paisaian gaude

Paisaia Lehen Hezkuntzako 1. zikloan



# Paisaian gaude

Paisaia Lehen Hezkuntzako 1. zikloan



**A** HASI  
BAINO LEHEN

## A.1. CURRICULUM LOTURA

### Kontzeptuzko edukiak

- Urdaibaiko paisaia baten osagaiak.
- Erliebe motak: bailarak, mendiak, ibaia, itsasadarra.
- Eguraldiaren osagaiak (euria, haizea, tenperatura...) eta paisaiaren aldaketa.
- Urtaro aldaketak (argia, eguzki orduak, tenperatura, landaretza...) eta paisaiaren aldaketa.
- Izaki bizidunak eta bizigabeak.
- Lanbideak (pasaian agertzen direnak).

### Prozedurazko edukiak

- Zentzumenak erabiliz paisaiaz ohartzea.
- Paisaian agertzen diren osagaiak sailkatzea (bizidunak eta bizigabeak).
- Gizakiaren eragina identifikatzea (gizakien jarduerak paisaian duten eraginez ohartzea).
- Ingurunean gertatutako eragin onuragarri eta kaltegarriez konturatzeta.
- Paisaiaren osagaiak marraztu eta kokatzea.
- Norberaren iritziak azaltzeko autonomia.
- Komunikatzeko materialak eta teknikak erabiltzea.
- Paisaiaren behaketa eta osagaien identifikazio zuzena.
- Ahozko deskribapenak.

### Jarrerazko edukiak

- Ingurunean esperientziak gauzatzuz ingurune naturalarekiko sentikortasuna garatzea.
- Ingurumenarekiko erantzukizuna, afektuzko eta zentzumenezko alderdiak sustatuz: jolasak.
- Portaera egokiak eta desegokiak bereiztea (irteeretan).
- Ingurumen, natura eta berria denarekiko jakinmina eta harridura.

## A.2. XEDE NAGUSIAK

- Gure zentzumen guztiakin naturarekin harremanetan jartzea eta gozatzea.
- Paisaiaren osagaiak identifikatzea, gu ere paisaian gaudela ohartuz eta bertan eragina dugula antzemanaz.

## A.3. BEHATOKIA

San Antonio hondartza, Sukarrieta. Behatoki honek itsasadarraren eskuinaldea, Kanala aldea, aztertuko dugu.

Zergatik San Antonio?:

- Garraio publikoa ia bertaraino iristen delako (bai tren, bai autobusa ere).
- Aztertuz goazen paisaiak erreferentzia argiak dauzkalako alde honetan.
- Adin horretako ikasleentzat leku lasaia izateaz gain, olgetarako leku batzuk eskaintzen dituelako.





### B.1. IRTEERA PRESTATZEN

(45 MINUTU INGURU)

Garrantzitsua da irteera bera egin aurretik, gelan bertan, ikastaldea *girotzea* eta *motibatzea*. Horretarako...

#### 1. jarduera: «Zein da gurea?»

(20 minutu)

##### Materiala:

— «Zein da gurea?» (Ikusi 8. Material Osagarria.  
1. Diapositibak eta gardenkiak.)

##### Prozedura:

- Ikasleei ariketa aurkeztu:
  - 3 diapositibak ikusi.
  - Urdaibaikoa zein den igarri behar dute.
- Ikasleei galdetu:
 

«Zer ikusi duzue hemengoa dela esateko?», eta agertzen diren osagaiak esanez erantzuten hasten direnean, irakasleak ordena bat proposatuko du (goian, erdian, behean; hurbiltasunaren arabera...).
- Ikasleekin ordena erabaki: goitik behera edo behetik gora aipatuko ditugu? (3 atal nagusietan agertzen diren osagaiak aipatuz joango dira).

#### 2. jarduera: Gora- behera, kirri-karra...

(10 minutu)

##### Materiala:

— Urdaibaiko diapositiba (aurreko jarduerako bera).

##### Prozedura:

Ariketa hau ere ahozkoa da.

Orain arte ikusi egin dugu, hemendik aurrera beste zentzumenekin jolastuko gara.

- Irakasleak, ondoko HITZ MAGIKOAK esanez, SUDUR bihurtuko ditu ikasle guztiak:

« GORA BEHERA  
 KIRRI KARRA  
 NESKA-MUTIL GUZTIAK  
 SUDUR/BELARRI BIHURTU GARA!».

- Hauxe galdetuko diegu: «Zeren usaina sumatzen dugu leku honetan?» (Erantzunak aurretiaz erabakitako ordenan ematen saiatuko gara).



- Irakasleak, *hitz magikoak* esanez, sudurrak (neska-mutilak) **belarri** bihurtuko ditu.
- Galdera: «Zer entzuten dugu leku hauetan?» (erantzunak ordenan, noski).

#### 3. jarduera: Irteera antolatzen...

(15 minutu)

##### Prozedura:

- «Zer iruditzen zaizue honelako leku bat ezagutzera joango bagara?» (Baiezkoa suposatuz).
- «Nola hurbildu gintezke bertaraino?» (Garraio bide beharra).
- «Zer beharko dugu?» (Ikasleekin zerrenda zehatza prestatu nork zer eraman apuntatuz).
  - Norberaren motxila eta jatekoa.
  - Ekipamendua (jantzia eta oinetakoak).
  - Materiala (paperak, margoak...).
- Lan bat egitera goazela –paisaia aztertzerako– kon-tuan izanik: «nola egon beharko dugu?».
- Jarrerai buruzko erantzunak: adi, lasai, taldean...
- Irteera eguna zehaztuko dugu.

### B.2. IRTEERA

(GOIZ OSOA EDO EGUN OSOA)


Aukeratutako lekura heldutakoan, kokatu (motxilak utzi,...) eta lasaitzeko...

#### 1. jarduera: Amaitu gabeko marrazkia

(20 minutu).

Jolas honen helburua guztion artean marrazki zehaz-tugabe bat osatzea da.

Material berezirik ez da behar.



**Prozedura:**

1. Lehenengo jokalaria aukeratuko dugu. Beste jokalari guztiak atzean eta aparte geratuko dira, horman adibidez.
2. Lehenengo jokalaria eskuaz edo makila batez marra bat egingo du harean eta «Aizu!» esanez bigarrenari hurbiltzeko keinua egingo dio marrazkia jarrai dezan.
3. Bigarrenak bizpahiru marra gehitzeko aukera izango du eta, ondoren, «Aizu!» esanez hurrengori emango dio txanda. Horrela, jokalari guztiak marrazkiaren inguruan bildu arte.
4. Dibertigarria izan daiteke amaieran jokalari bakoitzaren asmoak eta burutazioak komentatzea.

**2. jarduera: Formak paisaian**

(10 minutu)

*Ikusmena* erabiliz informazioa jaso. Behaketa jarrera hartzeko joko batekin hasiko gara.

**Materiala:**

«Formak paisaian». (Ikus 8. Material Osagarria. 3. Jokoak eta Grabaketak.)

**Prozedura:**

1. Ikasleak, hondartza sarrerako horman eserita daudela, laminetan irudikaturiko formak bilatuko dituzte aurreko paisaian.
2. Horretarako, irakasleak banan-banan aterako ditu laminak, ikasleen behaketa bideratuz eta erritmoa markatuz.

**3. jarduera: Aurkitu falta dena**

(30 minutu)

Behaketa osatzeko, paisaiaren 3 mailetan ikusten diren osagaiak identifikatu.

**Materiala:**

- 1. Fitxa: «Aurkitu falta dena». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- Arkatza eta margoak.
- Oinarri gogorra (oholtxo bat edo).

**Prozedura:**

1. Materiala banatu (bikoteka) eta, fitxan oinarrituz, komentatu: «zer dago non?, zer falta da?...»
2. «Zer ikur erabiltzen da zer adierazteko?»
3. Bikote bakoitzak bere paisaia osatu.
4. Ondorengo ariketatxoa ahoz osatu: «zein da toki honetako osagai nagusia? Basoan: zuhaitzak, arteak,...; Landan: etxeak, belarra,...; Itsasadarrean: ura, harea,...»

**4. jarduera: «Zer entzun duzu?»**

(10 minutu)

*Entzumena* erabiliz eta jolastuz informazioa jasoko dugu. Material berezirik ez da behar.

**Prozedura:**

1. Ikasleek begiak itxi eta hondartzan etzango dira.
2. Eskua kontagailu gisa erabiliz, soinu bat entzundakoan hatz bat altxatuko dute: zenbat soinu, horrenbeste hatz.
3. Minutu batez entzuten aritu ondoren, bakoitzak entzundako soinuak adieraziko ditu eta guztion artean soinu hori paisaiaren mailetako batean kokatzen saiatuko gara.



### 5. jarduera: «Nor naiz?»

(30 minutu)

#### Materiala:

- «Nor naiz?» (Ikus 8. Material Osagarria. 3. Jokoak eta Grabaketak.)
- Kate-orratza edo pintza bat.

#### Prozedura:

##### A Aukera:

Ikasleei jolasteko modua azaldu. Hauek dira arauak:

- Ikasle boluntario bati bizkarrean txartel bat lotu, berak zein den ikusi gabe.
- Horrek galderak egingo dizkio taldeari, nor den asmatzeko.
- Beste guztiak, irudia ikusiz, «bai» edo «ez» besterik ezin dute erantzun.

##### B Aukera:

Ikasleei jolasteko modua azaldu. Hauek dira arauak:

- Ikasle boluntario batek txartel bat hartzen du taldekideek ikusi gabe.
- Taldekoek, nor den asmatzeko galderak egingo dizkiote txarteldunari eta horrek «bai» edo «ez» besterik ez du erantzungo.



### B.3. IRTEERA ONDOREN

(1 ORDUBETE)

Irteeran jasotako informazioa hausnartu eta ondorioak atera

#### 1. jarduera: Erakusketa

Irteeran egindako marrazkiekin ERAKUSKETA bat antolatuko dugu: «Urdaibai San Antoniotik».

#### 2. jarduera: Murala

Erakusketaren laguntzaz, landutako guztia berrikusi eta bateratuko dugu. Jarduera egin aurretik, mural

handi bat prestatuko dugu, aztertu dugun paisaiaren profila islatuz (1. fitxan agertzen den bera), eta horman itsatsiko dugu.

#### Materiala:

- Paisaiaren profila azaltzeko murala.
- Arkatzak eta margoak.
- Artaziak.

#### Garapena:

1. Gure paisaian ikusitako hiru mailen izenak zehaztu eta arbelean idatziko ditugu.

	BASOA
	LANDA
	ITSASADARRA

2. Unitate bakoitzean ikusitako osagaiak aipatzea eskatuko diegu, bakoitza dagokion tokian idazteko. «Zer ikusi genuen basoan?, eta landan?, eta itsasadarrean?»

Zuhaitzak, harriak...	BASOA
Baserriak, etxeak, baratzak...	LANDA
Ura, harea, txalupak...	ITSASADARRA

3. Aipatutako osagai guztiak marraztuko ditugu (zereginak banatuta).
4. Prestatu dugun muralean itsatsiko ditugu marrazkiak, bakoitza dagokion tokian.

### 3. jarduera: Ondorioztapenak

Murala aprobetxatuz, paisaiaren *osagai naturalak* eta *eraikitako osagaiak* identifikatu, bereizi eta sailkatuko ditugu.

Hauxe galdetuko diegu: «Hor dauden osagai guztiak dira naturalak?».

Ezezko erantzuna espero denez, honelako ideia batzuk lantzen hasiko gara:

- Osagai naturalak zeintzuk diren eta muralean nola adierazi (marka berde batez, esaterako) adostuko dugu
- Bigarren urratsa ondokoa galdetzea izan daiteke: «*Eta markatu gabe daudenak, zergatik daude hor?*» Honen moduko erantzun bat espero dugu: «*Gizakiak eraiki dituelako*».

Hortaz: «Paisaian gaude gu?» «Nabaritzen da gure presentzia?».

Galdera horien erantzunak izango dira, nolabait, gure lanaren *ondorioztapenak*. Horiek taldeka landu eta karteletan islatu ditzakegu, erakusketari eransteko.

Azken jarduera hori *talde ebaluaziorako* ere erabili ahal dugu. Horrela, paisaiari buruzko murala osatzeko eta egindako hausnarketaren ondorioztapenak adierazteko gaitasuna baloratu ahal izango dugu.



# Paisaia bizitzen

Paisaia Lehen Hezkuntzako 2. zikloan



# Paisaia bizitzen

## Paisaia Lehen Hezkuntzako 2. zikloan



HASI

BAINO LEHEN

### A.1 CURRICULUM LOTURA

Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloan ondorengo edukiak planteatu ditzakegu (\*):

#### Kontzeptuzko edukiak

- Paisaiaren osagai eta ezaugarri behagarrien eza-guera.
- Paisaiaren osagaien arteko harreman xeheak.
- Erlikearen osagaiak: mendia, bailara, ibaia, kostaldea...
- Eguraldiaren osagaiak (euria, haizea, tenperatura...) eta klimarekin duten lotura.
- Urtaro aldaketa.
- «Paisai unitateen» adibideak: basoa (artadia), landazabala, itsasertza, itsasadarra.
- Natur ingurunea, baliabide iturri den aldetik.
- Giza jarduerak paisaian: lurzoruaren erabilerak, uraren erabilera...
- Paisaiak jasaten dituen aldaketak (bilakaera).

#### Prozedurazko edukiak

- Paisaiaren osagaiei behatzea.
- Eztabaidak eta erkaletak egitea.
- Informazio eta hobekuntzan oinarrituriko irtenbideak eta ekintzak proposatzea.
- Paisaiaren osagaiak eta haien arteko harremanak ezagutzea eta sailkatzea, giza alderdia aintzat hartuz.
- Irudikapen grafikoak: marrazkiak, eskemak, krokisak...
- Deskribapenak.
- Puntu kardinalak lekutzea.
- Ekintzak antolatzeko eta akordioak eta arauak proposatzeko autonomia.
- Talde-lanerako jardunbideen ikaskuntza.
- Komunikaziorako material eta tekniken erabilpena.
- Orientazioa, Eguzkia erreferentzia gisa erabiliz.
- Prozesu eta erlazio sinpleen behaketa eta identifikazioa.
- Laginak biltzean, ingurua errespetatzen duten tekniken erabilpena (bilduma-zaletasuna eta izaki bizidunen erabilera ezegokia saihestuz).



#### Jarrerazko edukiak

- Inguruarekiko sentikortasuna, esperientzia praktikoaren bidez.
- Ingurumen arazoekiko sentikortasuna, paisaiak erkatuz.
- Ingurumenarekiko erantzukizuna, afektuzko eta zentzumenezko alderdiak sustatuz (jolasak).
- Berri eta natural denarekiko eta ingurumenarekin zerikusia duen orekiko harridura eta jakin-mina.
- Ingurunean gauzatzen diren ekintzen ondorio onuragarri eta kaltegarriekiko kontzientzia.
- Inguru hurbileko ingurumen arazoetan pertsonak eta instituzioek duten inplikazioaren azterketa sinplea.
- Iritzi ezberdinekiko eta arauarekiko begirunea, komunikazioa egokia izan dadin.
- Arazoen konponbidea aurkitzeko interesa.

### A.2. XEDE NAGUSIAK

- Paisaiaren osagaien artean erlazioak eratzen eta hainbat «unitate» osatzen dutelako kontzientzia hartzea.
- Paisaia aldatu egiten dela ohartzea. Aldaketa batzuk naturalak dira eta beste batzuk gizakien ekintzaren ondoriozkoak.

(\*) Proposatutako edukiak, batez ere prozedurazko eta jarrerazko batzuk, paisaia aztertzean ez ezik, beste gai batzuekin loturik ere landu beharko dira.





### A.3. BEHATOKIA

Lehen ziklorako azaldutako irizpenak baliagarriak dira oraingoan ere. Hau da, behatokia garraio publikoaren bidez joan daitekeen leku batean dago (San Kristobaleko tren geltokia –geralekua– oso hurbil dago hareatzatik). Bestalde, erreferentzia baliotsua izango zaizkigu paisaiaren irakurketa antolatu eta errazteko aipatutako hiru mailak ere –goian, erdian,

behean–. Azkenik, lekuak bai lanerako, bai jolas eta aisiarako aukerak eskaintzen ditu.

Hortaz, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako proposamena garatzeko, *San Kristobaleko hareatza* aukeratu da. Hareatzaren kanpoaldean jarriko gara, hortik itsasadarraren, paduraren eta itsasadarraren eskumako ertzaren oso ikuspegi ona izango dugu eta. Eskumako ertz horretarantz, hain zuzen ere, zuzenduko dugu begirada.

## B LAN PROPOSAMENA

## JARDUERAK

### B.1. IRTEERA PRESTATZEN

(BI SAIO)

#### 1. SAIOA MOTIBAZIOA (1 ORDUBETE)

Girotzeko saio bat proposatzen dugu, irteera prestatu eta jarrerak, portaera arauak eta abar zehazteko. Saio honetan, eskaintzen diren fitxen laguntza erabil daiteke edo, nahiago izanez gero, ahoz ere egin ahal da. Era batera nahiz bestera egin, ondoko lan gidoia erabil daiteke:

#### Aurkezpena (5 minutu)

Irakasleak gaia planteatuko du (jarduera hau proposatzeko une egokia eskualdea lantzen hasten garenekoa izan daiteke); ondoren, irteera aurkeztu eta beraren zergatia azalduko du:

«Zertara goaz?»: Urdaibaiko leku bat –hurbil dugun ingurunea– beste ikuspuntu batetik ezagutzera, osotasunean

#### 1. jarduera: «Nora goaz?» (15 minutu)

##### Materiala:

— 2. Fitxa: «Nora goaz?» (Ikus 7. Lan Fitxak.)

— Urdaibaiko mapa (1:25.000 eskalako). (Ikus 8. Material Osagarria, 5. Mapak eta planoak.)

##### Garapena:

- Urdaibaiko mapan geure herria eta bisitatuko dugun tokia lekutuko ditugu:
  - «Zer ibilbide egingo dugu?»
  - «Nondik pasatuko gara?»
  - «Zer garraiobide erabiliko dugu?»
- Hipotesiak formulatu, egingo dugun bidea mapan seinatatu eta zeharkatuko ditugun herriak aipatuko ditugu. Ondoren, ibilbidearen krokisa egingo dugu.
- Mapan puntu kardinalak markatuko ditugu. «Zer norabidetan (iparralderantz, hegoalderantz...) joan behar dugu?»
- «Zer esan nahi dute mapan ageri diren koloreek?» (Ikus legenda).

#### 2. jarduera: Aurretizko ideiak (10 minutu)

##### Materiala:

Material berezirik ez da behar.

##### Garapena:

— «Zer uste duzue dagoela leku horretan? nolakoa ote da?» Hipotesiak formulatuko ditugu edo, nor-

baitek zer edo zer jakinez gero, besteoi azaltzeko eskatuko diogu. Informazio hori idatziz jasoko dugu, irteeran bertan kontrastatzeko.

— «Zer eraman behar dugu?»

Denon artean prestatuko dugu zerrenda eta bakoitzak, ondoren, norberak eraman beharrekoa idatziko du orri batean. Gauza horietako batzuk ikasgelakoak izango direnez, materialaren arduradunak izendatu eta talde bakoitzaren zereginak antolatu beharko ditugu.

### 3. jarduera: «Nola egongo gara?»

#### Arau batzuk adostu

(30 minutu)

#### Materiala:

— 3. Fitxa: «Jarrerak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

1. Taldeka, marrazkietan irudikatutako ekintzak bi multzotan sailkatuko ditugu (inguruarentzako onuragarriak eta kaltegarriak).
2. Sailkapen horretan oinarriturik, talde bakoitzak bere «arauak» idatziko ditu.
3. Guztion adostasuna lortzen dugunean, «portaera kodea» prestatuko dugu.

## 2. SAIOA PROZEDURAK LANTZEN (1 ORDUBETE)

### 1. jarduera: Krokisarekin trebatzen

(30 minutu)

Krokisa oso tresna baliagarria da paisaia aztertzeke. Ondoko jardueraren xedea teknika hori erabiltzeko ohitura hartzea da.

#### Materiala:

— «Zer ikusten da San Kristobaletik?» (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

#### Garapena:

A. *Osagaien identifikazioa*

*Diapositiba* erabiliz, ondoko galderak egingo ditugu:

1. «Zer ikus dezakegu?» (osagaiak)
2. «Non dago osagai bakoitza?»

Lehen zikloan bezala, hiru mailen eskema erabiliko dugu, osagaia goian, erdian ala behean dagoen bereizteko, eta maila edo «paisaia-unitate» horietako bakoitzean nagusitzen den giroaz mintzatuko gara: goian –basoa (artadia); erdian– baratzak eta zelaia; baserrien inguruan; behean - itsasadarra (harea, ura).



#### B. *Paisaiaren krokisa*

Ondoren, diapositiban ageri den *paisaiaren krokisa* egin dezakegu, praktika hartzeko. Hona hemen krokisak marrazten ikasteko modu erraz bat:

1. Diapositiba arbelean edo paper handi batean proiektatuko dugu.
2. Bertan, paisaiaren profila edo lerro nagusiak marraztuko ditugu.
3. Osagai garrantzitsuenak edo bereizgarriak seinatuko ditugu.
4. Hurrek koadernoan kopiauko dute arbeleko krokisa.

### 2. jarduera: Hots paisaiak 1

(30 minutu)

Paisaiaren pertzepzioan ez dugu soilik ikusmena erabiltzen. Zentzumen guztiek esku hartzen dute, belarriaren eginkizuna ere nabarmentzen delarik. Hori dela eta, ondorengo jarduera iradokitzen dugu entzuzko sumamena lantzeko.

#### Materiala:

— «Hots paisaiak 1». (Ikus 8. Material osagarria; 3. Jokoak eta grabaketak.)

#### Garapena:

1. Alde batetik, hainbat «hots paisaia» (itsasoa, herria, basoa eta belardia) ageri den grabaketa aurkeztuko dugu. Bestetik, paisaia horien irudia agertzen duten laminak erakutsiko dizkiegu.



- Zati bakoitza entzutean, ikaslea hari dagokion laminarekin lotzen saiatuko da eta bertan irudikatuturiko paisaiaren izena idatziko du.
- Ondoren, erantzunak erreparatu eta entzundakoa komentatuko dugu.

## B.2. IRTEERA

(GOIZA EDO EGUN OSOA)

Irten aurretik, ikasgelan, izan behar dugun jarrera eta portaerari buruz adostu duguna gogoratuko dugu.

Lekura iritsita eta asaskatu eta toki eroso aurkitzeko beharrezko 10 minutuak pasa ondoren, lanari ekingo diogu.

### 1. jarduera: Paisaiaren zentzumenezko pertzepzioa

(15 minutu)

#### Materiala:

— 4. Fitxa: «Zentzumena erabiltzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

Paisaia kanpotik ikustea baino, bera sentitzea, bizitzea, da xedea, hau da, bertan integratzea. Horretarako, zentzumena guztiak erabiliz lan egin behar dugu. Proposatutako fitxak jarduera kokatzen lagundu ahal digu, baina ahoz ere egin ahal dugu, fitxarik gabe.

### 2. jarduera: Osagaien identifikazioa

(15 minutu)

#### Materiala:

— 5. Fitxa: «Ea aurkitzen duzun!» (Ikus 7. Lan Fitxak.)



#### Garapena:

Paisaia interpretatu eta irakurtzeko lehen urratsetako bat osagaiak identifikatzea da. Bilaketa askea egin

dezakegu, irizpiderik eman gabe, edo fitxan agertzen direnak bezalako kontsigna batzuen bidez identifikazioa orientatu. Interesatzen zaizkigun kontsignak gehi ditzakegu edo beraiek nahi dituztenak proposatzeko eska diezaiekegu.

### 3. jarduera: Osagaien sailkapena <sup>3</sup>

(10 minutu)

#### Materiala:

— «Zer multzotakoa zara?» (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta grabaketak.)

#### Garapena:

- Txartel bana emango diegu ikasleei, bakoitza bere txarteleko osagaiarekin identifikatu dadin.
- Hainbat irizpide planteatuko dugu sailkapenak egiteko. Adibidez:
  - «Nortzuek egiten duzue arnas?» (izaki bizidun guztiak saltoka hasiko dira eta izaki bizigabeak ahalik eta geldien egongo dira).
  - Irizpide hauek ere erabil daitezke:
    - \* Osagai naturalak eta eraikitakoak.
    - \* Jarduera mota edo lurraren erabileraren batekin (nekazaritza, etxebizitza, industria, turismoa...) loturiko osagaiak.

### 4. jarduera: Osagaien arteko erlazioak <sup>4</sup>

(20 minutu)

Paisaiak nolabaiteko antolakuntza agertzen du. Osagaiak badute nolabaiteko lotura elkarrekiko. Ideia horretara hurbiltzeko, erlazio xehe batzuk aurkitzen saiatuko gara.

Erlazioak lantzeari bereziki interesgarri deritzagu, sarritan, osagaiei erreparatzen diegunean, ahaztu egiten baitzaizkigu haien artean gertatzen diren elkarrekintzak. Erlazio horiek garrantzi berezia hartzen dute ingurumen gaietan; beraz, ingurumen hezkuntzan beti azpimarratzen dira haien garrantzia eta gure lan hezigarrian aintzat hartu beharra.

Hala ere, gogoan izan behar dugu «erlazio» kontzeptua nahiko abstraktua dela eta adin horretako haurrentzat zaila dela erlazioez ohartzea. Ondoren aurkeztu den jolas-jarduera kontzeptu hori lantzeko era egokia izan daiteke:

#### A. NOR DAGO ERLAZIONATURIK NOREKIN?

#### Materiala:

— «Nor doa norekin?» (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta grabaketak.)

— Dadoa.

#### Garapena:

- Osagai txartel bana hartuko dugu. Borobilean jarrita, zenbatzen nondik hasi erabakiko dugu.

(3) Jarduera hau ikasgelan ere egin daiteke, irteeraren ostean.

(4) Berdin.

Erdian dadoak eta erlazio txartelen poltsa ipiniko ditugu.

2. Dadoa bota eta zenbatzen hasiko gara adostu dugun lekutik. Dagokionak bere txartela erakutsi eta «nor» den esan behar du. Ondoren, txartel bat aterako du erlazio poltsatik eta bertan idatzitako galdera egingo du.

Adibidez: «Ni behia naiz. Zer jaten dut?» edo «nork jaten nau?»

Kasu horretan harremana elikadurarekin loturikoa da eta hauxe litzateke galdera generikoa: «nor dago nirekin erlazioaturik "elikaduraren" bitartez?»

3. Erlazio horretan parte hartzen dutenek talde bat osatzen dute.
4. Taldea desegin eta berriro botako dugu dadoa, jolasarekin segitzeko. Azalduz doazen osagai eta erlazioen arabera taldeak aldatu egiten dira. Osagai bakoitzak hainbat erlazioetan har dezake parte.

#### B. ERLAZIOAK LANTZEKO BESTE MODU BAT:

Paisaiaren bi osagai aukeratuko ditugu ausaz eta esaldi baten bidez lotuko ditugu. Adibidez:

- Osagaiak: belardia, baserria.
- Esaldia (erlazioa): Belardiak baserrien ondoan daude.

Esaldia beste osagai batzuekin eratuz joan gaitzke: Belardiak baserrien ondoan daude, belarra animaliak bazkatzeko aprobetxatzen delako.

Atsedendia, ogitartekoak, jolasak, argazkiak...



Atsedendian, geroago ikasgelan egingo dugun erakusketarako argazki batzuk egin ditzaten eskatuko diegu.

**Jolasak.** Berez sortzen direnez gain, besteren bat ere antolatu ahal dugu. Hona hemen ideia pare bat:

- «Ikusi-Makusi».— Honen moduko jolas tradizional batzuek paisaiaren osagaiak aurkitzen lagundu ahal digute. Gainera, irizpide zehatzen bat finkatu ahal dugu.

Adibidez: «flora eta faunako elementuek baino ez dute balio...»

- «Aitxor inprobisatuak».— Bidean zehar edo gauden tokian bertan hamar gauza batuko ditugu (haziak, lurreko hostoak, harriak...). Kontuz ibili behar dugu gauzak batzean inguruari erasorik edo bestelako arazorik ez eragiteko.

Zapi batean bilduko ditugu. Ondoren, ikastaldea elkartuta, gauzak ikusteko segundo batzuk eman eta horietako bakoitza bezalako beste bat bilatzeko esango diegu. Bizpahiru laguneko taldetan ekin ahal zaio bilatzeari. Minutu batzuen ostean (bilketa nola doan arabera) berriro elkartzeko esan, gauzak banan-banan atera eta bakoitzari buruzko zerbait interesgarri kontatuko dugu.

Aldi berean, ikasleek aurkitutakoak ere ikusiko ditugu.

### 5. jarduera: Krokisarekin lanean

(30 minutu)

#### Materialia:

- 6. Fitxa: «Paisaiaren krokisa». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

1. Fitxan agertzen den paisaiaren krokisa emango diegu.
2. Orientatzea eta puntu kardinalak seinalatzea eskatuko diegu (iparrorratza eta eguzkiaren erreferentzia erabil ditzakegu).
3. Bertan, falta diren osagaiak marraztuko ditugu.
4. Guztion ekarpenak bateratzean, hiru multzotan sailkatuko ditugu osagaiak, goiko aldean, erdian edo behean dauden arabera (bereiz daitezkeen hiru «paisaia-unitateak»).
5. Zer kolore nagusitzen dira paisaia honetan? «Paisaia-unitate» bakoitzari erreparatuz egin dezakegu galdera, koloreen nagusitasuna azaltzeko arrazoiak bilatuz eta haietako bakoitza giro zehatz batekin lotuz.

Berde iluna: artadia

Berde argia: belardiak eta landazabala

Horixka: hondartzak

Urdina: itsasadarra

...

Krokisean, dagokion koloreaz margotu ahal dugu unitate bakoitza eta, ertzean, legenda labur bat idatzi.

### 6. jarduera: Paisaiak izan dituen aldaketak

(15 minutu)

Gauden tokian urteetan zehar izan diren aldaketa batzuk komentatuko ditugu. Esaterako, hareatza, hemendik oso hurbil dagoen Muruetako ontziolatik

itsasontziren bat atera ahal izateko, itsasadarra dragatzean erauzi ziren materialen metaketaren ondorioa da. Antzinako munaren aztarnak ere ikus daitezke leku horretatik. Muna mareak inguru hori estaluz eragozteko eraiki zen dike txiki bat zen. Horrela, itsasadarrari «irabazitako» lur eremu hori hainbat gauzatarako erabili ahal zen. (Irteeraren ostean, beste jarduera bat planteatuko dugu informazio hau aprobetxatzeko).

Azalpen txiki horren ondoren, aztertzen ari garen paisaian aldaketen arrastoak bilatzeko eskatuko diegu, berdin aldaketa naturalak nahiz gizakiek eragindakoak izan.

### B.3. IRTEERA ETA GERO

(BI SAIO)

Ondoren, bi saiotan antolatutako jarduera batzuk proposatzen ditugu. Lehenengo saioa paisaiaren izaera dinamikoaren ideia sendartzeko erabiliko dugu. Bigarrenean, garrantzitsuena «finkatu» eta egin dugun lana ebaluatzeko laburpen bat egin dezakegu.

#### 1. SAIOA PAISAIK IZAN DITUEN ALDAKETAK (1 ORDUBETE)

##### 1. jarduera: San Kristobalen gertatutako aldaketak

(20 minutu)

###### Materiala:

— 7. Fitxa: «San Kristobalen gertatutako aldaketak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

###### Garapena:

— San Kristobalen izan diren aldaketei buruz irteeran komentatu genuena ekarriko dugu gogora eta proposatutako fitxarekin egingo dugu lan.

##### 2. jarduera: Urdaibai gure aitaita-amamen garaian


(20 minutu)

###### Materiala:

— «Urdaibai gure aitaita-amamen garaian». (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)

###### Garapena:

1. Talde txikitan antolatuko gara.
2. Talde bakoitzari Urdaibaiko bi argazki emango dizkiogu (bata antzinakoa eta bestea gaur egungoa).



##### 3. Hauxe egitea eskatuko diegu:

- Lekua identifikatzea.
- Argazkiak erkatu eta ezberdintasunei erreparatzea.
- Gertatutako aldaketak baloratzea: «Nola gustatzen zaizu gehiago? Zergatik?»

#### 2. SAIOA BATERAPENA ETA KOMUNIKAZIOA (1 ORDUBETE)

##### 1. jarduera: Paisaiaren puzzlea

(30 minutu)


Alderdi subjektiboek garrantzi handia daukate paisaiari dagokionez. Pertsona bakoitzak sentsazio eta bizipen ezberdinak ditu paisaiaren estimuluen aurrean. Beraz, garrantzitsua da hurrek izan dituzten sentsazioak azaltzea; banaka edota taldeka egin daiteke. Adibidez, jarduera honen bidez, pertsona bakoitzaren sentsazioez, taldeak izan duen sentsazio orokorra eratu eta irudikatu ahal dugu.

###### Materiala:

- Kartulina.
- Puzzlerako piezak, zuriak, aldez aurretik prestatuak. (Ikus eredia: «Paisaiaren puzzlea». 8. Material Osagarria. 3. Jokoak eta Grabaketak.)

###### Garapena:

1. Kartulina bat hartu eta lagun kopurua beste zatitan ebakiko dugu, zatiei puzzleen piezen itxura emanez (pieza bakoitzari zenbaki bat jarriko diegu, geroago dagokion lekuan ipintzeko).
2. Beste kartulina batean, oinarria prestatuko dugu, piezen forma emanez (hutsarte bakoitzean dagokion zenbakia egongo da), geroago puzzlearen pieza guztiak bertan ipintzeko.



3. Aztertutako paisaiari buruz bakoitzak nahi duena marraztuko du bere piezan (osagaien bat, paisaiak iradoki dizkion forma edo koloreen konbinazioa...).
4. Ondoren, piezak banan-banan ipiniko ditugu oinarrian, puzzlea osatu eta taldeak sumatu duen ikuspegi orokorra lortzeko. Jarduera hau beste paisaia mota batean eginez gero, emaitza (osagaiak, formak, koloreak...) eta sentsazio orokorra ezberdinak direla ikusiko dugu.

## 2. jarduera: Erakusketa

(30 minutu)

### Materiala:

- Sortu dugun guztia: mapa, fitxak, krokisa, marrazkiak, argazkiak...

### Garapena:

1. Daukagun materialaz erakusketa txiki bat antolatu dugu.
2. Garrantzitsuena berrikusi eta «finkatuko» dugu, ondorioztapenak egingo ditugu, mezuak prestatu, proposamenak egin...
3. Erakusketaz baliatuz, gainerakoei (ikastetxeko beste taldeei, gurasoei, herriko beste pertsona batzuei...) erakutsi ahal diegu ikasi duguna.

Finean, laburpen, ondorioztapen eta adierazpen lana da planteatzen ari garena. Horregatik, jarduera honek prozesua *ebalutzeko une* gisa ere balio digu. Hainbat alderdi baloratu ahal dugu: talde lana, adierazteko gaitasuna, taldeak eraturiko jarrerak eta eza-gupenak...





# Paisaia irakurtzen

Paisaia Lehen Hezkuntzako 3. zikloan



# Paisaia irakurtzen

Paisaia Lehen Hezkuntzako 3. zikloan



HASI  
BAINO LEHEN

## A.1. CURRICULUM LOTURA

### Kontzeptuzko edukiak

- Paisaiaren osagai eta ezaugarri behagarriak.
- Osagaien sailkapena, ikuskapena eta beren erlazioen azterketa, gizakien ikuspegia sartuz.
- Aldaketa naturalak eta gizakiak denboran zehar eragindakoak.
- Egon daitezkeen irtenbideak, paisaiaren berriztapena.
- Lurraldearen okupazioa eta paisaiaren aldaketa.
- Baliabideen erabilpena eta arazoaren arteko erlazioa.

### Prozedurazko edukiak

- Paisaiak konparatzea.
- Plano errazak: egokitasuna.
- Iparrorratz eta mapen bidez orientatzea.
- Eskema, kontzeptu mapa eta marrazkiak erabiltzea.
- Mapak eta eskema errazak.
- Adierazpenak eta deskribapenak: ahozkoak, kartografikoak...
- Maketak.
- Iritzi erkaketa.
- Arazoen identifikazioa eta irtenbide proposamena.
- Ingurunearen ikerketa.
- Iritzi kritikoaren sendarpena, eztabaida, erkaketa eta abarren bidez.

- Ingurunea hobetzeko irtenbideak eta informazio ekintzak proposatzea.
- Behaketa eta identifikazio kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- Prozesu eta erlazio sinpleen azterketa.
- Bibliografia, aldizkariak, telebista eta prentsa erabiltzeko teknikak.

### Jarrerazko edukiak

- Ingurumen arazoekiko sentikortasuna, paisaiaren erkaketaren bidez.
- Ingurunean gertatutako eragin positibo eta negatiboez ohartzea.
- Gizakiek eragindako aldaketen balorazioa.
- Ingurumenarekiko erantzukizuna, afektuzko eta zentzumenezko alderdiak sustatuz: jolasak.
- Norberak eta inguruko erakundeek ingurune hurbilean dauden arazoetan duten inplikazioaren azterketa.
- Simulazio jokoak eginez eta kasu batzuk aztertuz, balioak argitu.

## A.2. XEDE NAGUSIAK

- Paisaiaren osagai guztiek garrantzi bera ez dutela ulertzea. Osagai «garrantzitsuen» identifikazioa.
- Paisaiak erkatzea.
- Gizakiek eragindako aldaketa batzuk baloratzea.

## A.3. BEHATOKIA

Aurreko zikloetarako azaldutako irizpideak baliozkoak dira honetarako ere. Oraingo honetan, *Mundaka* aukeratu dugu geure proposamena garatzeko, *Goiko Talatik* kostaldea eta estuarioa aztertzeko xedez.







## B.1. IRTEERA PRESTATZEN (2 SAIO)

### 1. SAIOA MOTIBAZIOA (1 ORDUBETE)

Irteera prestatu eta jarrerak, portaera arauak eta abar zehaztearren, girotzeko saioa egitea proposatzen dugu. Horretarako, proposatutako fitxak erabil daitezke edo, bestela, ahoz egin.

ZER EGINGO DUGU?

Urdaibaiko leku bat –hurbil dugun ingurunea– beste ikuspuntu batetik ezagutuko dugu, osotasunean. (Jarduera hau proposatzeko une egokia eskualdea lantzen hasten garenekoa izan daiteke.)



### 1. jarduera: Galdu ez gaitzen

(20 minutu)

**Materiala:**

- 8. Fitxa: «Galdu ez gaitzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- Urdaibaiko mapa (1:25.000 eskalakoa). (Ikus 8. Material Osagarria. 5. Mapak eta Planoak.)

**Garapena:**

1. Urdaibaiko mapan (1: 25.000 eskalakoa) geure herria eta bisitatuko dugun tokia lekutuko ditugu.
2. «Zer ibilbide egingo dugu? Nondik pasatuko gara? Zer garraibide erabiliko dugu?» Hipotesiak formulatu, egingo dugun bidea mapan seinalatu eta zeharkatuko ditugun herriak aipatuko ditugu. Ondoren, ibilbidearen krokis erraz bat egingo dugu.
3. 1:25.000 eskala erabiliz, leku batetik bestera dauden kilometroak kalkulatu ditugu.

### 2. jarduera: Aurretizko ideiak

(20 minutu)

A. «NOLAKOA OTE DA LEKU HORI?» (15 minutu)

**Materiala:**

- 9. Fitxa: «Nolakoa ote da leku hori?» (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- Urdaibaiko mapa (1:25.000 eskalakoa). (Ikus 8. Material Osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

**Garapena:**

1. «Zer uste duzue dagoela leku horretan? Nolakoa ote da?» Hipotesiak formulatuko ditugu edo, norbaitek zer edo zer jakinez gero, besteoi azaltzeko eskatuko diogu.
2. Mapa eta bertako legenda erabiliz, 9. fitxa egingo dugu. Gero, irteeran, material hau erabiliko dugu.

B. «ZER ERAMAN BEHAR DUGU?» (5 minutu)

Denon artean prestatuko dugu zerrenda eta guztiek idatziko dute euren koadernoan, bakoitzak eraman behar duena prestatzeko. Gauza horietako batzuk ikasgelakoak izango direnez, materialaren arduradunak izendatu eta talde bakoitzaren zereginak antolatu beharko ditugu.

### 3. jarduera: «Nola egongo gara?» Arau batzuk adostu...

(20 minutu)

**Materiala:**

- 3. Fitxa: «Jarrerak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

**Garapena:**

1. Taldeka, marrazkietan irudikatutako ekintzak bi multzotan sailkatuko ditugu (inguruarentzako onuragarriak eta kaltegarriak).
2. Sailkapen horretan oinarriturik, talde bakoitzak bere «arauak» idatziko ditu.
3. Guztion artean adostuko ditugu.

## 2. SAIOA PROZEDURAK LANTZEN (1 ORDUBETE)

### 1. jarduera: Krokisarekin trebatzen

(20 minutu)

**Materiala:**

- «Zer ikusten da Mundakatik». (Ikus 8. Material osagarria. 3. Laminak eta argazkiak.)
- «Ikuspegiaren krokisa, Mundakatik». (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

- Gardenkiak egiteko azetatoa edo kipula-papera, A4 tamainakoa (azetatoa aukeratuz gero, errotiladore iraunkor bat erabili beharko dugu ondo marraztu ahal izateko, bestela tinta zabaldu egingo da eta).

**Garapena:**

Krokisa lan tresna gisa erabiliko dugunez, komeni da lehenago praktikatzea. Hona hemen horretarako modu bat:

1. Taldeka banandurik, proposatutako laminaren kopia bana eta azetatoa edo kipula-papera emango dizkiegu.
2. Azetatoa edo kipula-papera laminaren gainean ipini eta paisaiaren lerro garrantzitsuenak kalkatuko ditugu (erliebea, kostaren lerroa, basoak, osagai esanguratsuenak...). Horrela, krokisak aztertuko dugun paisaiari buruzko ideia emango digu, paisai unitateak eta osagai nabarmengarrienak, gutxi gorabehera, bereizteko aukeraz. Proposatutako gardenkia proiektatuz erakutsi ahal dugu adibide bat.

**2. jarduera: Behatzeko markoa**

(15 minutu)

**Materiala:**

- Kartoia (edo kartulina).
- Arkatza, erregla eta artaziak.


**Garapena:**

Irteera prestatzeko saio honetan «behatzeko markoa» egin dezakegu. Kartoizko (edo kartulinazko) marko bat egitea besterik ez da, landa-jardueran behaketa eremua kokatzen eta mugatzen lagunduko diguna, argazki batean sartu ahal dugun paisai zatia baillitza. Markoaren eta begien artean uzten dugun tartearen arabera, ikus eremua zabalagoa edo murriztagoa izango da.

**3. jarduera: Hots paisaiak**

(25 minutu)

Paisaiaren pertzepzioan ez dugu soilik ikusmena erabiltzen. Zentzumen guztiek esku hartzen dute, bela-



riaren eginkizuna ere nabarmentzen delarik. Hori dela eta, ondorengo jarduera iradokitzen dugu entzunezko sumamena lantzeko.

**Materiala:**

- «Hots paisaiak 2». (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta grabaketak.)

**Garapena:**

Alde batetik, zazpi «hots paisaia» (itsasoa, herria, basoa, zelaia, leizea, mendia eta gaua) ageri diren grabaketa aurkeztuko dugu. Bestetik, paisaia horien irudia agertzen duten laminak erakutsiko dizkiegu.

Tarte bakoitza entzutean, ikasleak hari dagokion laminarekin lotzen saiatuko dira eta bertan irudikatutako paisaiaren izena idatziko dute, geroago bateratzeko.

**B.2. IRTEERA**

(GOIZA EDO EGUN OSOA)

Toki egokia aurkitu eta behaketa esparrua gutxi gorabehera mugatu ondoren, lanari ekingo diogu:

**1. jarduera: Paisaiaren zentzumenezko pertzepzioa**

(15 minutu)

**Materiala:**

- 4. Fitxa: «Zentzumenak erabiltzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

**Garapena:**

Paisaia kanpotik ikustea baino, bera sentitzea, bizitzea, da xedea, hau da, bertan integratzea. Horretarako, zentzumen guztiak erabiliz lan egin behar dugu. Proposatutako fitxak jarduera kokatzen lagundu ahal digu.

**2. jarduera: Aurretiazko ideiak kontrastatzen**

(15 minutu)

**Garapena:**

Bizpahiru laguneko taldetan antolatuturik, ikasgelan prestatutako deskribapen eta zerrendaren gainean jardungo dugu, paisaian azaltzen ez dena ezabatuz, aipatu ez dena erantsiz... Osagai bakoitza ikur batekin identifikatu ahal dugu, geroago krokisean eta paisaiaren bestelako irudikapenetan erabiltzeko.

**3. jarduera: Paisaiaren krokisa**

(15 minutu)

**Materiala:**

- Behatzeko markoa.
- Oinarria (oholtzoa).
- Arkatza eta margoak.

**Garapena:**

Kartulinazko markoa erabiliz, behatuko diogun paisai zatia mugatuko dugu. Ikasgelan argazkiaz egindako krokisa ekarriko dugu gogora eta haren moduko beste bat egingo dugu errealitatean zuzenean oinarrituz. Bertan osagairik adierazgarrienak markatuko ditugu (lehenago prestatutako ikurrak erabil ditzakegu) eta, koloreko lapitzez, paisai unitate handiak (artadia, itsasoa...) zehaztu ahal ditugu.

Atsedernaldia, ogitartekoak, argazkiak,...

**4. jarduera: Osagai «garrantzitsuen» identifikazioa**

(15 minutu)

Badira osagai batzuk, kenduz gero, paisaia guztiz aldarazten dutenak. Osagai naturalak nahiz gizakien ekintzaren ondorioa izan daitezke. Horiek paisaiaren osagai «garrantzitsuak» (egituratzaileak) dira, bera definitzen eta, nolabait, antolatzen (egituratzen) dutelako. Hauek dira osagai egituratzaile naturalak: erliebea, sare hidrografikoa, basoak, etab. Eta ondokoak aipa ditzakegu lurraldea antolatzen duten eta giza ekintzen ondorio diren osagaietarik: hiri-sareak, komunikazio bideak, lurzoruaren erabilerak... Bestalde, osagai egituratzaileek beste batzuekiko zerikusia izaten dute.

Adibidez: lurralde jakin bat zeharkatzen duen errepi-dean beste osagai eta zerbitzu batzuk ere egoten dira (biltegiak, tailerrak, hainbat ekipamendu...); horiek ere eragina dute lurraldean eta paisaian.

**Materiala:**

— «Non dago aldaketa?» (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)

**Garapena:**

1. Taldeka antolatuta, aztertzen ari garen paisaian osagaien bat aldaturik agertzen duen lamina bana emango diegu.
2. Aldaketa aurkitu eta, osagai hori aldatuta, paisaia nabarmenki aldatu den ala ez baloratu beharko dute. Horren arabera, osagai hori «garrantzitsua» den ala ez erabakiko dute.

Oharra: Batzuetan zalantzak azal daitezke osagai bat «garrantzitsua» den ala ez erabakitzerakoan. Edonola ere, kontuan izan behar dugu benetako helburua, osagai guztien garrantzia egokiro zehaztu baino, guztiek ez daukatela garrantzi bera ohartaraztea dela; batzuk besteak baino nabarmenagoak direla, alegia.

**5. jarduera: Paisaiak jasaten dituen eraginak**

(15 minutu)

**Materiala:**

— 10. Fitxa: «Paisaiak jasaten dituen inpaktuak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

Ikasleei gizakien ekintzak paisaian duen eragina eta berak ekar ditzakeen aldaketak ulertaraztea da jarduera honen helburua.

**Adibidea:**

Harrobia → Mendi zati bat desagertu egiten da.

Egon litezkeen irtenbideak ikasgelan eztabaidatuko dira.

**6. jarduera: Orientazio jolasa**

(40 minutu)

Planoak eta mapak ezinbesteko tresna dira lurralde-arekin eta, zehazkiago, paisaiarekin zerikusia duen edozein gai lantzeko. Jarduera honek planoak modu jostagarrian lantzeko aukera ematen digu.


**Materiala:**

— Mundakako planoak eta txantiloia. (8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

**Garapena:**

1. Hiruzpalau ikasleko taldeak egingo ditugu. Talde bakoitzari Mundakako planoak eta zenbakituriko laukitxoak dituen txantiloia bat emango dizkiogu, haiek, aurkitzen dituzten argibideekin osatuz joan daitezten, puzzle antzera. Argibideak alde aurretik prestatu eta ipini behar dira herriko hainbat tokitan.
2. Planoan irteera puntua markatuko dugu, talde guztientzat bera. Hala ere, talde bakoitzak ibilbide ezberdina egingo du, herriko leku jakin batean bilatu beharko dituelako bere «argibideak». Horretarako, eman dizkiegun irizpideak erabili beharko dituzte, planoak gida modura erabiliz.
3. «Argibide» bakoitza puzzlean kokatzeko pieza bat da eta, bertan, irizpide berri bat aurkituko dute.
4. Erraz egiaztatu ahal da argibideak aurkitu dituzten, talde bakoitzak bere puzzlea osatu behar du eta.





Ibilbide adibidea:

Irteera: pilotalekua

- 1. argibidea: Sorospen postua (Txorrokopunta);
- 2. argibidea: Osakidetza;
- 3. argibidea: Mundaka Hotela;
- 4. argibidea: Telefono publikoa;
- 5. argibidea: Hiltegi kalea;
- 6. argibidea: Portua.

### B.3. IRTEERA ETA GERO (2 SAIO)

Ondoren, bi saiotan antolaturiko jarduera batzuk proposatzen ditugu. Ez dira denak egin behar; geure interesen eta daukagun denboraren arabera komeni zaizkigunak aukeratu ahal ditugu. Gure ustez, bi ordu nahikoa izan daitezke laburpena egin, garrantzitsuenak «finkatu» eta egin dugun lana ebaluatzeko.

#### 1. jarduera: Krokis trukea

(15 minutu)

Talde bakoitzak beste bati pasatuko dio bere kroki-sa, horiek interpretatzeko gai diren ikusteko. Erabilitako ikurrei erreparatuko diegu: «gure taldeak erabili dituenen berdinak dira?» Irudikapenetan (mapak,...) hitzarmenezko ikurrak erabili beharra aipatuko dugu, mundu guztiak uler ditzan.

#### 2. jarduera: Inpaktuetarako alternatibak

(30 minutu)

**Materiala:**

- Irteeran egindako 10. Fitxa. («Paisaiak jasaten dituen inpaktuak») hartuko dugu berriro.

Talde txikitan antolaturik, ingurunean identifikatu ditugun inpaktuetarako irtenbideak bilatzen eta horiek saihestu edo murriztu egin daitezkeen ala ez, zer neurri har litezkeen eta abar baloratzeko saiaturiko gara. Ondoren, bateratze lanari ekingo diogu.

#### 3. jarduera: Paisaiak sortzen

(45 minutu)

**Materiala:**

- «Ecoterra» jokoak. (Ikus 8. Material Osagarria. 3. Jokoak eta Grabaketak.)

Honakoa, indartzeko ariketa ona izan daiteke, azterketak, deskribapenak, erkaketak eta abar egiteko aukera ematen digulako.

Era berean, paisaiaren diseinu eta plangintza ideietara hurbiltzea ere ahalbidetzen digu.

#### 4. jarduera: Kontzeptu mapa

(15 minutu)

**Materiala:**

- Eskaintzen den kontzeptu maparen eredua: «Kontzeptu mapa». (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

Guztion artean egingo dugu kontzeptu mapa, ikasi ditugun ideia garrantzitsuenak islatuz. Horrek egingo dako lana laburtzeko balio izango digu. *Ebaluazio jarduera* gisa ere erabil dezakegu.

#### 5. jarduera: Komunikazioa

(60 minutu)

*Erakusketa* txiki bat prestatuko dugu (kartelak, argazkiak...) aztertu duguna eta egin ditugun ondorioztapenak hezkuntza elkarteari ezagutarazteko. Horretarako, sortu dugun materialaz gain, mezu eta ondorioztapenak jasotzen dituzten kartelak egingo ditugu.



# Paisaia aztertzen

Paisaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloan



# Paisaia aztertzen

Paisaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloan



## A.1. CURRICULUM LOTURA

Oinarrizko Curriculum Diseinuari jarraituz, ondorengo edukiak planteatu ahal ditugu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan<sup>5</sup>:

### Kontzeptuzko edukiak

- Inguru natural eta sozialaren osagaiak. Haien arteko erlazioak.
- Paisaia naturalak. Giza jardueren eta kanpo-eragileen ondoriozko aldaketak.
- Erliebeak giza ekintzaren ondorioz jasandako inpaktuak: harrobiak, errepideak...
- Baliabideen ustiakuntza.
- Uraren gestioa: bilketa, arazketa, banaketa...
- Urdaibaiko klima. Paisaian duen eragina.
- Bioaniztasun galera: ehiza, bertoko zuhaitzen ordezpena -oihaneztatzearen bidez- eta nekazaritzako jarduerak.
- Urdaibaiko ekosistemak (hiri eta landa ekosistemak).
- Energi iturriak eta kontsumoa.
- Biztanleriaren egitura, sailkapena eta dinamika.
- Lehen sektoreko jarduerak: nekazaritza, abelazkuntza, erauzketa jarduerak (harrobiak...).
- Komunikazio bideak: komunikazio eta garraio bide garrantzitsuenak.
- Kontsumoak eragindako inpaktuak.

### Prozedurazko edukiak

- Lurraldearen pertzepzioa eta irudikapena (planoak, mapak...).
- Orientatzeko teknika eta tresnen erabilera (eguzkia, iparrorratza...).
- Plano eta mapa topografikoen interpretazioa eta erabilera.
- Maketen eraiketa.
- Paisaien deskribapena.

- Ekosistemen behaketa.
- Lurraldean denboran zehar jazotako aldaketen behaketa.
- Informazio bilketa, dokumentazio zentro, heme-roteka, liburutegi eta antzekoetan.
- Fitxategi eta erregistro orrien sorrera.
- Ahozko, idatzizko eta ikur bidezko tekniken erabilpena.
- Ingurunearentzat erasokorrak diren jarduketaren detekzioa.

### Jarrerazko edukiak


- Inguru natural eta soziala ezagutzeko interesa.
- Irteera taxutzen eta prestatzen parte hartzea.
- Norberaren arazoibide eta iritziak azaltzeko autonomia.
- Jarduerak taxutu eta proposatzeko gaitasuna.
- Lurraldearen eta baliabideen erabilpenarekiko jarrera kritikoa.
- Lan taldeetan parte hartzea.
- Erabilera batzuetarako arazoizko alternatiben bilaketa.
- Paisaiaren zainketa eta hobekuntzarekiko konpromiso pertsonala.
- Ingurugiroarekiko jokabide arduratsuak indartzea.

## A.2. XEDE NAGUSIAK

Hona hemen ziklo honetan indartu nahi ditugun alderdiak:

1. Paisaia errealitate aldakor eta dinamiko gisa ikustea.
2. Giza ekintzaren ondoriozko aldaketen itzulgarritasun edo itzulezintasuna aztertzeke diagnostikoa egitea.
3. Krokisa eta mapa paisaia eta lurraldearen pertzepzio eta irudikapena lantzeko erabiltzea.

(5) Proposatutako edukiak, prozedurazko eta jarrerazko batzuk bereziki, paisaia aztertzean ez ezik, beste gai batzuk lantzean ere hartu beharko dira kontuan.



### A.3. BEHATOKIA

Ikasleen gaitasuna haziz doan heinean, areagotu ahal izango dugu aztertu beharreko paisaien konplexutasuna. Ildo horretan, Bigarren Hezkuntzan hiri-inguruekin loturiko paisaiak lantzeko une egokia delakoan gaude. Hori dela eta, Lumo aukeratu dugu

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako, Gernika (hiri bilbea, industrialdea,...) eta inguruak (sarbideak, komunikazio bideak, inguraldea...) ikusteko aukera ederra ematen duena. Horrez gain, leku lasaia eta arriskurik gabekoa da eta oinez joan daiteke bertaraino Gernikatik.

## B LAN PROPOSAMENA

## JARDUERAK

### B.1. IRTEERA PRESTATZEN (2 SAIO)

#### 1. SAIOA MOTIBAZIOA (1 ORDUBETE)

Girotzeko saio bat proposatzen dugu, irteera prestatu eta jarrerak, portaera arauak eta abar zehazteko. Saio horretan eskaintzen diren fitxen laguntza erabil daiteke edo, nahiago izanez gero, ahoz ere egin daiteke. Era batera nahiz bestera egin, ondoko lan gidoia erabil daiteke:

#### 1. jarduera: «Zer da paisaia?»

(10 minutu)

Jarduera honek taldeak paisaiari buruz dituen aurretiazko ideietara hurbiltzeko, hau da, paisaia nola ulertzen duen ikusteko aukera ematen du.

#### Materiala:

— 11. Fitxa: «Paisaia aukeratzeko». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

1. Talde txikitik antolaturik, bakoitzak fitxan ageri diren paisaietako bat aukeratu du.
2. Zergatik aukeratu duten komentatu dugu, bai eta, egun osoa pasatzeko eta bertan bizitzera geratzeko balizkoetan, aukera bera egingo lukeen ere.

#### 2. jarduera: Irteeraren aurkezpena

(10 minutu)


Sarrera labur horren ostean, jorratuko dugun gaia aurkeztuko dugu, irteera zertarako planteatzen dugun azalduz, eta prestatzeari ekingo diogu: «zertara goaz?», «nora goaz?»...

#### Materiala:

- Urdaibaiko mapa. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta Planoak.)
- Kurbimetroa edo haria.

#### Garapena:

1. Urdaibaiko mapan geure herria eta bisitatuko dugun tokia lekutuko ditugu: «Zer ibilbide egingo dugu?», «nondik pasatuko gara?», «zer garraiobide erabiliko dugu?»...
2. Mapan ibilbidea markatu eta gero, ibilbidearen krokisa egingo dugu.
3. Mapa erabiliz, eta eskala kontuan hartuz, leku batzuen arteko distantziak kalkulatu ditugu. Bide errealak lerro zuzenean ez doazenean distantziak kalkulatu nahi izanez gero, kurbimetroaz baliatu beharko dugu. Tresna xehe hori eduki ezear, maparen gainean ibilbidea hari batez jarraitu eta neurtu ahal dugu (kurbak, saihezbideak eta gainerako alderdi guztiak). Ondoren, eskala kontuan hartuta, benetako distantzia kalkulatu dugu.



4. «Zer eraman behar dugu?»: karpeta, prismatikoak, argazki kamera...

### 3. jarduera: «Nolako da leku hori?»

(10 minutu)

#### Materiala:

- Urdaibaiko mapa (1:25.000 eskalako).
- Lumo inguruaren airetiko argazkia. (Ikus 8. Material Osagarria. 4. Laminak eta Argazkiak.)
- Jarduera sozio-ekonomikoari buruzko estatistikak. Gernika-Lumo. (Ikus 8. Material osagarria. 2. Estatistikak.)

#### Garapena:

1. Hipotesien formulazioa edo, norbaitek zer edo zer jakinez gero, informazioaren azalpena. «Zer dago leku horretan?» «Nolako ote da?»
2. Hipotesiak mapak, airetiko argazkiak eta estatistikek ematen dituzten informazioarekin alderatu. Mapako ikur konbentzionalak eta horiek ematen dituzten informazioa interpretatuko ditugu.
3. Dauzkagun datuez, lekua deskribatu eta ahalik eta gehien zehaztuko ditugu beraren ezaugarriak erliebeari, landaretzari eta gizakien presentziari dagokienez. Deskribapen horiek geroago errealtatearekin alderatzeko gordeko ditugu.

### 4. jarduera: «Nola egongo gara?» (Arauk adostu)

(30 minutu)

#### Materiala:

- 3. Fitxa: «Jarrerak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

Taldeka:

1. Marrazkietan irudikatutako ekintzak aztertuko ditugu.
2. Ondoren aipatzen diren alderdietan ager daitezkeen beste ekintza batzuk (onuragarriak zein kaltegarriak) erantsiko ditugu:
  - Taldea (harreman pertsonalak).
  - Lana (jarrerak eta prestutasuna).
  - Ingurumena (gure presentziaren inpaktua).
3. Irteera behar bezala garatzeko, gure ustez, beharrezkoak diren jarrerak aipatuko ditugu eta ezarritako hiru multzoetan (taldea, lana eta ingurumena) sailkatuko ditugu.
4. Jokabideak adosten saiatuko gara.

## 2. SAIOA PROZEDURAK LANTZEN (1 ORDUBETE)

### 1. jarduera: Profil topografikoa

(15 minutu)

Profil topografikoak inguruaren erliebearen ideia dakarkigu. Gainera, tresna erabilterraza da eta oso eza-guna. Nork ez du ikusi egunkarian edo telebistan txirindulari birako etapa baten profila?


#### Materiala:

- 12. Fitxa: «Profil topografikoa. Gernika-Burgogana». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

Profil topografikoa lortzeko, mapan markatutako ibilbidea orri koadrikulatuan proiektatu –sestra kurbak kontuan hartuz– besterik ez da egin behar.





## 2. jarduera: Krokisa

(15 minutu)

### Materiala:

- «Lumotiko bista». (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)
- «Lumotiko bistaren krokisa». (Ikus 8. Material Osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)
- Gardenkiak egiteko azetatoa.
- Errotuladore iraunkorrak.

### Garapena:

1. Taldeak egin eta argazkiaren kopia banatuko diegu.
2. Azetatoa erabiliz, krokisa egin beharko dute. Horretarako, paisaia definitzen duten lerro garrantzitsuenak kalkatuko dituzte argazkitik. (Adibide bat erakutsi ahal diegu materialeko gardenkia proiektatuz.)

## 3. jarduera: Hots paisaiak

(30 minutu)

Paisaiaren pertzepzioan ez dugu soilik ikusmena erabiltzen. Zentzumen guztiek esku hartzen dute, belarriaren eginkizuna ere nabarmentzen delarik. Hori dela eta, ondorengo jarduera iradokitzen dugu entzunezko sumamena lantzeko.

### Materiala:

- «Atmósferas». (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta grabaketak.)

### Garapena:

1. Alde batetik, hamaika «hots paisaia» ageri diren grabaketa aurkeztuko dugu. Bestetik, paisaia horien irudia agertzen duten laminak erakutsiko dizkiegu.
2. Tarte bakoitza entzutean, ikasleak hari dagokien laminarekin lotzen saiatuko dira eta bertan irudikatutako paisaiaren izena idatziko dute.
3. Emandako erantzunak erreparatuko ditugu.
4. Joango garen lekuari buruz dakigunean oinarrituz, entzun ahal izango ditugun soinuen gaineko hipotesiak egingo ditugu. Zerranda prestatuko dugu, geroago lekuan bertan egiaztatzeko.

## B.2. IRTEERA

(GOIZA EDO EGUN OSOA)

Irten aurretik, ikasgelan, izan behar dugun jarrera eta portaerari buruz adostu duguna gogoratuko dugu.

Lekura iritsita eta asaskatu eta toki erosoan aurkitzeko beharrezko 10 minutuak pasa ondoren, lanari ekingo diogu.

Ariketak bikoteka edo talde txikitik egingo ditugu eta, ondoren, guztiok elkartuko gara lana bateratzeko. Prozesua bizkortzearen, ondorioztapen edo komentario batzuk ikasgelara itzultzen garenerako utzi ahal ditugu.

### 1. jarduera: Paisaiaren zentzumenezko pertzepzioa

(10 minutu)

Paisaia kanpotik ikustea baino, bera sentitzea, bizitzea, da xedea, hau da, bertan integratzea. Horretarako, zentzumen guztiak erabiliz lan egin behar dugu. Gidoi gisa 4. fitxa erabili ahal dugu, «Zentzumena erabiltzen» (Ikus 7. Lan Fitxak), baina ez dago pertzepzioak erregistratu beharrik.

### 2. jarduera: Hipotesiak alderatzen

(10 minutu)

Leku horretako landaretza, erliebe, giza presentzia eta suma daitezkeen soinuei buruz genituen ideiak eta ikasgelan formulatutako hipotesiak errealitatearekin alderatuko ditugu.

### 3. jarduera: Mapan orientatzea

(10 minutu)

#### Materiala:

- 14. Fitxa: «Lumo inguruko mapa». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- Iparrorratza.

#### Garapena:

Bikoteka, erreferentzia errealean arabera (mendiak, ibaia,...) orientatuko dugu mapa eta gauden tokia aurkitu eta seinalatuko dugu bertan. Era berean, iparrorratzaren laguntzaz, iparra seinalatuko dugu mapan.

**4. jarduera: Osagaien identifikazioa**

(15 minutu)

**Materiala:**

- 13. Fitxa: «Paisaiaren osagaiak identifikatzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

**5. jarduera: Osagaien arteko erlazioak. Fluxuak**

(10 minutu)

Paisaiak nolabaiteko antolakuntza agertzen du. Osagaiak elkarrekin erlazonaturik daude era batera edo bestera. Erlazio horietako batzuk aurkitzen saiatuko gara.

Erlazioak lantzea bereziki interesgarria da. Oro har, osagaiak erreparatu ohi diegu baina beraien arteko erlazioak ahaztu egiten ditugu, hein batean. Hala ere, erlazio horiek nabarmentasun berezia dute ingurumen gaitan. Horregatik, ingurumen hezkuntzak azpimarratu egiten ditu haren garrantzia eta gure lanari erantsi beharra.

Aztertzen ari garen paisaian hiri-inguruaren eta landazabalaren arteko interfase aldea ikus dezakegu. Horrek hiriko sarrera eta irteera fluxuei buruzko ideia, hots, barrualdearen eta kanpoaldearen artean gertatzen diren trukeak (lehengai, energia, hondakin eta abarrenak) lantzea ahalbidetzen digu. Gaur egun, fluxu eta truke horiek ez dira lurralde mugakideekikoak soilik, sarritan planeta mailakoak dira eta. Ideia hori lantzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko inportazio eta esportazioari buruzko datuak erabili ahal ditugu

**Materiala:**

- 15. Fitxa: «Erlazioak eta Fluxuak». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- EAEko inportazioak/esportazioak. (Ikus 8. Material osagarria. 2. Estatistikak.)


**Garapena:**

15. fitxak, «Erlazioak eta fluxuak» izenburukoak, behaketaren bidez hauteman edo susmatu ahal ditugun erlazio eta fluxuak aztertzeko eta erregistratzeko balio digu. Autonomia Erkidegoko inportazio eta esportazioei buruzko estatistikek ikusten ez ditugun erlazio batzuk, zuzenean nahiz zeharka, planeta osora hedatzen direla gogorarazten digute.

**6. jarduera: «Nola erabiltzen dugu lurraldea?»**

(20 minutu)

Lotura zuzena dago lurraldearen erabileraren eta ondoriozko paisaiaren artean. Jarduera honen bidez, aztertzen ari garen alde horretan garatzen diren jarduera motak ezagutu eta, ondorioz, zer paisai mota den jakin ahal izango dugu.

**Materiala:**

- 16. Fitxa: «Nola erabiltzen dugu lurraldea?» (Ikus 7. Lan Fitxak.)

**7. jarduera: Gatazkak identifikatzen**

(15 minutu)

Lurralde batean ingurumen arloko hainbat gatazka sortzen da interes ezberdinak batzearen ondorioz eta jardura batzuen artean (nekazaritza, hirigintza, erre-serba naturala, industria, zerbitzuak, azpiegiturak...) lurzoruari dagokionez dagoen lehiaren eraginez, besteak beste.

Garrantzitsua da gatazka horiek lantzea, identifikatu, aztertu eta ulertzeko xedez, bai eta konponbideak eta horiek gauzatzeko bitartekoak bilatzea ere.

Irteeran, lurraldeari behatuz, gatazka posible batzuk identifikatu ahal ditugu. Ondoren, ikasgelan, sakonkiago aztertuko ditugu banan-banan (B.3. *Irteera eta gero* atalean, Gernikako saihebidetaren gainean lan egitea proposatzen dugu).

**Materiala:**

- 16. Fitxa: «Nola erabiltzen dugu lurraldea?» (Ikus 7. Lan Fitxak.)

**Garapena:**

Inguru horretako jarduerak identifikatu ostean, balizko bat planteatu eta horrek gainerako jardueretan, lurraldean eta paisaian izango lukeen eragina aztertuko dugu azaletik.

**Adibidez:**

Gernikara 10.000 lagun gehiago etorri gero, non eraikiko genituzke etxeak?, nola hazi beharko luke hiriak?, zer-nolako eragina izango luke?, aldatuko litzateke paisaia?, eraginik izango luke nekazaritza, turismoan...?

Atsedenaldira, ogitartekoak, jolasak, argazkiak,...

Atsedendian, geroago ikasgelan egingo dugun erakusketarako argazki batzuk egiteko esango diegu.

### 8. jarduera: Paisaiak izan dituen aldaketak (15 minutu)

Paisaia eboluzionatuz doa eta hainbat aldaketa jasaten ditu, bai naturalak, bai gizakiek eragindakoak. Aldaketa horiek, gehienetan, ez dira bat-batekoak izaten, prozesu baten ondorioa baizik. Dena den, gertatutako, gertatzen ari diren edo gertatuko diren aldaketa horien seinale edo aztarnak (aurriak, garabiak, obrak, lur mugimenduak...) zuzenean ikus daitezke paisaian.

#### Materiala:

— 17. Fitxa: «Aldaketak detektatzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

### 9. jarduera: Paisaiak jasaten dituen inpaktuak (20 minutu)

Giza taldeek hainbat aldaketa eragin diote euren inguruneari ongizate handiagoa lortzeari begira. Hala ere, giza ekintzaren ondorioz, sarritan, ingurumena hondatu egiten da eta, ondorioz, bizi kalitatea ere.

#### Materiala:

— 18. Fitxa: «Inpaktuak aztertzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

Talde bakoitzak ingurumena inpaktu bat identifikatu du (bat baino gehiago aztertzea komeni da, bate-ratzean aberastasun handiagoa lortzeko) eta fitxan proposatutako gidoiari jarraituz aztertuko du.

### 10. jarduera: Paisaia baloratzen (10 minutu)

Paisaia baloratzerakoan, osagai objektiboek ez ezik, alderdi subjektiboek ere eragiten dute. Horregatik komeni da horiek ere aintzat hartzea.



#### Materiala:

— 20. Fitxa: «Paisaia baloratzen». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

### 11. jarduera: Paisaiaren irakurketa kolektiboa (10 minutu)

Irteeran landutakoaren laburpen gisa, paisaiaren irakurketa kolektiboa eta zuzendua egin ahal dugu. Irakasleak galdera eta iruzkinen bidez zuzenduko du «irakurketa».

#### Garapena:

##### A. IKUSIZKO IRAKURKETA

1. *Osagai nagusiak*: nabarmentzen diren osagaiei erreparatuko diegu: bolumenak, hiri-ehuna, lerro nagusiak, komunikazio ardatzak, eraikinak...

Bai hiriko, bai landako paisaian, arreta erakartzen duten osagai nabarmen batzuk izaten dira, hala nola elizak, dorreak, jauretxeak, etxe multzoak...

Zer nabarmentzen den begiratu eta zergatia bilatuko dugu. Tamainak eta bolumenak balio sinbolikoa dute. Mapak lagundu egin ahal digu, bertan daude-eta irudikaturik osagai guztiak.

2. *Kolore eta ehundurak*: paisai unitateei buruzko ideia intuitiboa ematen digute: hiriguneak, landa-zabala, basoa...

3. *Zonen banaketa*: hirigunea eta industrialdea (tren-bideak banandurik), kirol gunea, hilerria...

##### B. IKUSTEN DUGUNA DITUGUN DATUEKIN ERLAZIONATU

1. Badago loturirik estatistiketako datuen (jarduera sozio-ekonomikoa) eta ikusten ari garenaren artean?

2. Hiria bere ingurunean lekutuko dugu: kokagunea (leku estrategikoa, komunikazio bideen bateragunea). Mapa eta errealitatea alderatuko ditugu.

3. Arro hidrografikoa, haran txiki batzuk eta ibaiak identifikatuko ditugu.

4. Oihaneztapenak (pinuak) eta basoak erkatuko ditugu: kolorea, muga forma...

Garrantzitsua da baso-ustiapena?

##### C. KROKISA

Ikusten ari garenaren krokisa egingo dugu.

### B.3. IRTEERA ETA GERO

Bost saiotan antolatutako jarduera batzuk proposatzen ditugu. Ez dira guzti-guztiak egin behar; geure interesen eta daukagun denboraren arabera aukeratu ahal izango ditugu zeregin egokienak.

#### 1. SAIOA PAISAIAN GERTATUTAKO ALDAKETAK (1 ORDUBETE)

##### 1. jarduera: «Zein da giltza?» (20 minutu)

Sumatzen dugun paisaia hainbat aldagairen arabera aldatzen da:

- Argitasuna (eguneko unearen arabera).
- Eguraldia.
- Urtaroa.
- Gizakien ekintza (historian zehar izandako eraldakuntza handiagoa edo txikiagoa).
- Behatzeko hautatutako puntua...

##### Materiala:

- «Zein da giltza?» (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta Argazkiak.)

##### Garapena:

1. Talde txikiak eratuko ditugu.
2. Talde bakoitzari bi argazki dituen lamina bat emango diegu.
3. Bi argazkien artean aldaketarik sumatzen duten galdetuko diegu. Baiezkoan, zeren ondorioa da?

##### 2. jarduera: Gernika-Lumoko paisaiaren bilakaera

(40 minutu)

##### Materiala:

- «Gernika-Lumoko paisaiaren bilakaera». (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)

##### Garapena:

1. Taldeei grafiko sortaren kopia bana emango diegu, inguruko paisaian historian zehar izandako aldaketen ideia egiteko, eta interpreta ditzaten eskatuko diegu.
2. 100 urte barru ikusi ahal izango den paisaia imajinatu eta marraztea iradokiko diegu.
3. Baterapena eta iruzkinak: Zer neurri hartu beharko lirateke etorkizuneko paisaia kalitatekoa izateko?...



### 2. SAIOA

#### ADIERAZPENA ETA INTERPRETAZIOA (1 ORDUBETE)

Alderdi subjektiboak oso garrantzitsuak dira. Pertsona bakoitzak sentsazio eta bizipen ezberdinak sumatzen ditu paisaiaren estimuluen aurrean. Hori hainbat adierazpideren bitartez landu ahal da: literatura, margolanak, argazkiak...

##### 1. jarduera: Urdaibai margolanetan (20 minutu)

##### Materiala:

- «Urdaibai margolanetan». (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta Argazkiak.)

##### Garapena:

Laminetan inguruko artistek egindako obren kopiak ageri dira, Urdaibaiko paisaiak tratatu eta irudikatze-ko hainbat modu ikusteko parada eskaintzen dutenak. Era berean, artistak, berari interesatzen zaizkion sentsazio, sentimendu eta bizipenak islatzearen, «errealitate objektiboaren» zati bat sakrifikatu egiten duela ikus daiteke.

1. Taldeka banatuko dizkiegu laminak eta elkarri pasatuz joango dira, guztiak ikusteko.
2. Azaleratuz doazen sentsazioak eta iritziak komentatuko ditugu.

##### 2. jarduera: Collage deskribagarria (30 minutu)

##### Materiala:

- Kartulina.
- Kartulina tirak.

##### Garapena:

1. Ikasle bakoitzari kartulina tira bat emango diegu, aztertutako paisaiari buruzko esaldi bat idatz dezan. Mezua askea izan daiteke edo, bestela, alde zehatzetako (deskribapena, sentsazioak, sentimenduen adierazpena...).

2. Tira guztiak kartulinan itsatsi eta gure paisaiari buruzko deskribapen kolektiboa izango dugu.

### 3. SAIOA GATAZKA BAT AZTERTZEN (50 MINUTU)

#### 1. jarduera: Gernikako saihebidia

Azpiegituren sorrera lurraldearen gaineko jarduketa adibide argia da: batetik, interes ezberdinen arteko gatazka sortzen du eta, bestetik, inpaktu zehatz bat dakarkio paisaiari. Horrexegatik hautatu dugu Gernikako Saihebidearen proiektua aztergai.

Gernikako Saihebidearen proiektuak ondorengo gaiak planteatzeko balio ahal digu:

- Ingurumen arazoak, talde sozialen interesen arteko gatazka diren aldetik.
- Gatazka horien ebazpenean parte hartzeko bideak.
- Alternatibak aurkeztu eta erabakiak hartzeko bideak.

#### Materiala:

- «Gernikako saihebidia». (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta Grabaketak.)

#### Garapena:

Gatazka hori aztertzeko, simulazio jolas bat proposatzen dugu. Patronatuaren osoko bilkura bat simulatuko dugu eta proiektuaren onarpena ala arbuioa eztabaidatuko dugu bertan. Eskainitako materialean pertsonaia batzuk eta hainbat jarrera eta interes ezberdin definitzen dira.

### 4. SAIOA BATERAPENA ETA KOMUNIKAZIOA (1 ORDUBETE)

#### 1. jarduera: Erakusketa

(45 minutu)

#### Materiala:

- Sortuz joan garen guztia: mapa, fitxak, krokisa, marrazkiak, argazkiak...

#### Garapena:

1. Daukagun materialaz erakusketa txiki bat antolatuko dugu.
2. Garrantzitsuena errepasatu eta «finkatuko» dugu, ondorioztapenak eta proposamenak eginez, mezuak prestatuz...
3. Erakusketaz baliatuz, gainerakoei (ikastetxeko beste taldeei, gurasoei, herriko beste pertsona batzuei...) erakutsi ahal diegu ikasi duguna.

#### 2. jarduera: Kontzeptu mapa

(15 minutu)

Kontzeptu mapa egitea -taldeka- estrategia egokia izan daiteke garrantzitsuena laburbiltzeko.

#### Materiala:

- Ez da material berezirik behar. Material osagarrien Maletan eskaintzen da eredu bat: «Kontzeptu mapa». (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

Finean, laburpen, ondorioztapen eta adierazpen lana da planteatzen ari garena. Horregatik, jarduera honek prozesua *ebalutzeko* une gisa ere balio digu. Hainbat alderdi baloratu ahal dugu: talde lana, adierazteko gaitasuna, taldeak bereganaturiko jarrerak eta ezagupenak...

### 5. SAIOA GERNIKA-LUMOKO MAKETA


Maketa bat eraikitzea osagarri interesgarria izan daiteke, lurraldea era hurbil eta intuitiboagoa irudikatze-ko aukera emateaz gain, mapak eskainitako informazioa (sestra kurbak...) hobeto ulertzea eta interesatzen zaizkigun beste alderdi batzuk (erliebea, inguru urbanizatuaren kokalekua, komunikazio bideak...) nabarmentzea ahalbidetzen digulako.

#### Materiala:

- Gernika-Lumoko maketa. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

#### Garapena:

Eskainitako materialaz aztertzen ari garen aldearen maketa eraikitzea da xedea. Eskainitakoa inguruko maparen kopia ezberdinak dira. Horietako bakoitzean maketaren «solairu» horri dagokion sestra lerroa dago markaturik. Taldeek maila bakoitza ebaki eta «solairuak» muntatu beharko dituzte.





# Paisaia baloratzen

Paisaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloan



# Paisaia baloratzen

Paisaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloan



## A.1. CURRICULUM LOTURA

### Kontzeptuzko edukiak

- Paisaia naturalak, klima, erliebe, ur eta landare-tzaren arteko elkarrekintzaren ondorio diren alde-tik.
- Paisaian gertatutako aldaketak eta lurraldearen erabilerak.
- Inpaktuak eta horiek zuzentzeko neurriak.

### Prozedurazko edukiak

- Irudikapen grafikorako teknikak (mapa topografi-koa, lekuaren krokisa...).
- Gaikako mapen interpretazioa (landaretza ma-pak, paisai mapak...).
- Lekuen deskribapena.
- Lurraldean denboran zehar jazotako aldaketen behaketa.
- Modelo eta maketen diseinua eta eraiketa.

### Jarrerazko edukiak

- Hainbat ingurune natural eta sozial ezagutzeko interesa.
- Arazoen konponketarako eta baliabideen erabile-ra arrazionalerako alternatibak proposatzea.

- Paisaian eragina duten jarduketaren detekzioa.
- Ingurua zaindu eta hobetzeko proiektuetan parte hartzea.

## A.2. XEDE NAGUSIAK

Ondorengo alderdiak azpimarratu nahi ditugu ziklo honetan:

- Lurraldearen erabilerak eta ondoriozko paisaia lo-tzea.
- Lurraldearen gestioak paisaian duen eragina ba-loratzea.
- Paisaiaren gestioan esku hartzen duten eragileak identifikatzea.

## A.3. BEHATOKIA

Ziklo honetan, gizakien jarduerarekin loturiko paisaia aztertzen segituko dugu. Horretarako, *Lamera Punta* aukeratu dugu, bertatik Bermeoko portua eta herria ikusten dira eta. Era berean, ikus eremua apur bat zabalduz gero, beste erreferentzia esanguratsu bat-zuk ere aurkituko ditugu, hala nola Sollube mendia edo Matxitxako lurmuturra.



## B.1. IRTEERA PRESTATZEN

(BI SAIO)

### 1. SAIOA MOTIBAZIOA (30 MINUTU)

#### 1. jarduera: Urdaibaiko paisaiak

(15 minutu)

##### Materiala:

- «Urdaibaiko paisaiak». (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

##### Garapena:

1. Urdaibaiko paisaien 12 diapositibak proiektatuko ditugu.
2. Bigarren proiektaldian ikasle bakoitzak gogokoen dituen hirurak aukeratu ditu.

Horrela, aurretiazko ideietara hurbildu eta paisaiaren alderdi subjektiboak hartu ahalko ditugu kontuan. Ikasleek aukeratu dituzten paisaien artean



eta biztanleen gustuko paisaiei buruz egindako azterlanen ondorioztapenekin bateratasunik dagoen ere egiaztatu ahal dugu (uraren presentzia, natur eta landa inguruneak...).

#### 2. jarduera: «Non daude?»

(15 minutu)

##### Materiala:

- «Urdaibaiko paisaiak». (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)
- Urdaibaiko mapa. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

##### Garapena:

Maparen laguntzaz, argazkietan ageri diren paisaia bakoitzean lekutuzen saiaturako gara. Une hori Urdaibaiko paisai aniztasuna komentatzeko aprobeitza dezakegu, aniztasun hori baita, hain zuzen ere, bertako aberastasun handietako bat. Horrexegatik daukagu baliabide hori behar bezala gestionatzeko erantzukizuna.

### 2. SAIOA INFORMAZIO ITURRIAK KONTSULTATZEN (1 ORDUBETE)

#### 1. jarduera: Lekuaren krokisa

(30 minutu)

Lekuaren krokisa oso teknika interesgarria da; izan ere, mapa topografikoan bildutako informazioa norberaren irudikapen batera ondo lekualdatzeko gai bagara, maparen «irakurketa» egokia bermaturik egongo da.

Adibide gisa, gardenkian eskainitako krokisa proiektatu ahal dugu.

##### Materiala:

- Urdaibaiko mapa. (Ikus 8. Material Osagarria. 5. Mapak eta Planoak.)
- Lekuaren krokisa. Bermeo. (Ikus 8. Material osagarria. 1. Diapositibak eta gardenkiak.)

##### Garapena:

Taldeka eta mapak ematen digun informazioa aintzat hartuz, lekuaren krokisa egingo dugu. Hau da, geure ikurrak erabiliko ditugu erreferentzia adierazgarrienak irudikatzen: kostaren lerroa, errepeidea, portua, lurzoruko maldak, etab.



**2. jarduera: Lekuaren deskribapena**

(30 minutu)

**Materialia:**

- Urdaibaiko mapa. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)
- Bermeo inguruaren airetiko argazkia. (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)
- Paisai mapa. Bermeo. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)
- Jarduera sozio-ekonomikoari buruzko estatistikak. Bermeo. (Ikus 8. Material osagarria. 2. Estatistikak.)

**Garapena:**

1. Talde txikitik antolatuz, behaketa egingo dugun lekua bilatuko dugu argazkian eta mapan.
2. Eskura ditugun materialen informazioaz (mapak, argazkia eta estatistikak), irteeran aurkituko dugunaren deskribapena egingo dugu.

**B.2.  
IRTEERA**

(GOIZA EDO EGUN OSOA)

**1. jarduera: Zentzumenezko pertzepzioa**

(10 minutu)

Paisaiaren zentzumenezko pertzepzioa aztertu nahi dugunerako osoko eta afektuzko hurbilpena da. Horregatik komeni da pertzepzio hori lehen jardueraren xedea izatea. 4. fitxak, «Zentzumena erabiltzen» (ikus 7. Lan Fitxak), gidoi gisa balio ahal digu.

**2. jarduera: Deskribapenaren alderaketa**

(15 minutu)

Ikasgelan egindako deskribapena banatuko diegu taldeei, haiek irakurri eta, haien iritziz, ondo deskribatuta dagoena berdez azpimarratzeko eta zuzena ez dena gorritz. Baliteke deskribapenean alderdi poetiko,



subjektibo edo modu ezberdinetan interpreta daitezkeenak egotea; horrela izanez gero, dauden bezala errespetatuko ditugu, azpimarratu gabe.

**3. jarduera: Mapan orientatzea**

(10 minutu)

**Materialia:**

- 19. Fitxa: «Bermeo inguruko mapa». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- Iparrorratza.

**Garapena:**

1. Binaka, erreferentzia errealean arabera (kosta, portua...) orientatuko dugu mapa.
2. Gauden tokia mapan bilatu eta seinalatuko dugu.
3. Iparrorratzaren laguntzaz, iparra markatuko dugu mapan.

**4. jarduera: Paisaiaren krokisa**

(10 minutu)

Banaka, ikusten ari garen paisaiaren krokisa egingo dugu.

**5. jarduera: Paisaiaren gestioa**

(45 minutu)

Paisaia baloratzean, alderdi subjektiboek badute garrantzirik, handia, izan ere. Dena den, paisaia baten *kalitatea*, *ikus hauskortasuna* eta beste alderdi batzuk baloratzeke, zenbait irizpide «objektibo» erabiltzen da. Kalitatea neurtzean, paisaiaren erakargarritasuna eta inportantzia zehazten saiatzen gara. *Ikus hauskortasunak*, giza jarduerak integratzeari begira, paisaiak eskaintzen duen aukeraren berri ematen digu. Hots, paisaia baten ikus hauskortasuna handia dela esango dugu, bertan dagoen edozein giza jarduera erraz sumatu ahal denean. Aitzitik, ikus hauskortasun txikioa da jarduera hori ia sumatzen ez denean.




Bi aldagai horiek lurraldearen planifikazio eta gestioarekin loturiko erabakiak hartzean gogoan izan behar ditugun irizpide batzuk agertzen dizkigute, jarduketa batzuek paisaiari eragiten dizkioten ondorioez gain. Jarduera honetan proposatzen duguna errealitatea sinplifikatzea da, halabeharrez. Hala ere, kontzeptu horietara eta paisaiaren gestioaren ideia hurbiltzeko modu ona delakoan gaude.

#### Materiala:

- 21. Fitxa: «Paisaiaren kalitatea». (Ikus 7. Lan Fitxak.)
- 22. Fitxa: «Paisaiaren ikus hauskortasuna».
- 23. Fitxa: «Paisaia eta lurraldearen erabilerak».
- «Erabilera-gomendioei buruzko mapa». Bermeo. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

#### Garapena:

1. Talde txikiak osaturik, «Paisaiaren kalitatea» izenburuko fitxa bana emango diegu. Fitxa erabili aurretik, gaineratik aztertu eta bertan, esleitutako puntuazioekin batera, azaltzen diren irizpideak komentatu ahal ditugu. Argi utzi behar dugu irizpide horiek eztabaidagarriak diren arren, gure sumapenak «objektibo bihurtzeko hitzarmen» gisa balio izango digutela (berez, errealitatean paisaia baloratzeko erabiltzen diren tresnen ideia ematen digute).
2. Fitxa egin eta emaitzak komentatuko ditugu.
3. Gauza bera egingo dugu 22. fitzarekin: «Paisaiaren ikus hauskortasuna».
4. Bi horien emaitza «Paisaia eta lurraldearen erabilerak» izenburua duen 23. fitxan integratuko dugu, ondoren, talde bakoitzaren iritzia komentatzeko.



5. Lurraldearen erabileraren gainean lortu ditugun emaitzak «Erabilera-gomendioei buruzko mapa» izenekoan azaltzen den informazioarekin erkatuko ditugu.

### 6. jarduera: Paisaian murgiltzen. Bermeoko ibilbidea

(60 minutu)

#### Materiala:

- 24. Fitxa: «Paisaian murgiltzen. Bermeoko ibilbidea». (Ikus 7. Lan Fitxak.)

#### Garapena:

1. Hiru laguneko taldeak eginda, proposatutako ibilbidea eta landu beharreko gaiak agertzen dituen fitxa emango diogu talde bakoitzari.
2. Ibilbidea amaitu ondoren, gaineratik komentatuko ditugu sententziak orokorrak, talde bakoitzaren lanaren azterketa zehatza ikasgelarako utziz.

### B.3. IRTEERA ETA GERO

(BI SAIO)

1. SAIOA  
(50 MINUTU)

#### 1. jarduera: Paisaia aldakorrak

(50 minutu)

Paisaia beraren «egoera» ezberdin bana (A eta B) agertzen duten bi puzzlerekin lan egingo dugu. Puzzle bakoitzak 32 pieza ditu.

#### Materiala:

- «Paisaia aldakorrak». (Ikus 8. Material osagarria. 3. Jokoak eta grabaketak.)

#### Garapena:

1. Lau talde osatuko ditugu (Beraz, zortzi puzzle behar ditugu: «A» motako lau eta «B» motako beste lau).
2. Aurkeztuko diegun paisaiari buruzko txostena egin behar duen aditu taldea direla esango diegu.
3. Talde batzuek «A» paisaia eta beste batzuek «B» paisaia izango dute eta ez dute euren ez den beste puzzlerik ikusi behar. Irakasleak talde bakoitzari eman dion puzzle mota idatziko du.
4. Puzzlea osatu ostean, txostena prestatu behar dute. Ez dute osorik idatzi behar; taldeek bozera-maile bana izendatuko dute, besteen aurrean aurkez dezan (10 min. dituzte horretarako). Txostenean honako alderdi hauek islatu behar dituzte:

*Paisaiaren deskribapena:*

- Paisai mota (hiria, basoa, herria, paisaia naturala...).



Bermeo. 1902. F. Hierro

- Erliebea (menditsua, laua...).
- Uraren presentzia (ibaia, zingira...).
- Gizakien jarduketak (eraldatutako osagaiak, eraikinak, azpiegiturak...).
- Ikusten diren jarduerak...

Paisaiak sorrarazten edo iradokitzen dizkien sentazioak (ikus, usaindu, ukitu eta entzunezkoak).

5. Talde handian elkartuko gara eta bozeramaileek euren txostenak aurkeztuko dituzte.
6. Honako galderak hauek egingo diegu: «Berdinak dira paisaia guztiak?», «ezberdinak dira guztiak?» (adierazitako iritziak ez ditugu ez baieztatuko, ez ezeztatuko; geroago tratatuko ditugu berriro).
7. Berriro taldetan banandurik, bigarren paisaia emango diegu, hau da, aurrekoan aztertu ez dutena.
8. Paisaia osotu ostean, lehenengoarekin erkatuko dugu. Hona hemen erkaketa egiteko argibide batzuk:
  - Lehenengoan ikusten diren eta bigarrenean ikusten ez diren bost gauza eta alderantziz.
  - Bietan dauden baina batean eta bestean itxura ezberdina duten bost gauza.
  - «Zein duzu gustukoena?» «Zergatik?»
  - «Zeintzuk dira bien arteko ezberdintasun garrantzitsuenak?»
9. Talde handian elkartuko gara berriro eta lehen egindako galdera errepikatuko dugu: «berdinak dira paisaia guztiak?». Dagoeneko, argi egongo da, ziurrenik, talde guztiak paisaia beraren bi bertsio, «A» eta «B», izan dituztela. Orain, laburki, egindako erkaketak bateratuko ditugu.

10. Ondorengo gidoian oinarrituz, eztabaidari ekingo diegu:

- «Estetikoak dira, soilik, ezberdintasunak?» «Zergatik?»
- «Ahal izanez gero, zein aukeratuko zenuke?»
- «Identifikatu ahal dira paisaia hauek garapen edo hondamen egoera batekin?»
- «Erraza da paisaia bat beste bat bihurtzea?» (bi noranzkoetan: hondamenetik lehengo egoerara eta alderantziz).
- «Zer onbideratze edo hondamen prozesu ikusi ahal ditugu?»
- «Aldaketa guztiak dira itzulgarriak?»

## 2. SAIOA PAISAIAREN ALDE LANEAN (1 ORDUBETE)

### 1. jarduera: Paisaia eboluzionatuz doa

(20 minutu)

#### Materiala:

- «Antzinako Bermeo». (Ikus 8. Material osagarria. 4. Laminak eta argazkiak.)
- Bermeoko planoak. (Ikus 8. Material osagarria. 5. Mapak eta planoak.)

#### Garapena:

1. Planoan toponimoak, kale izenak eta abar bilatuko ditugu (Erribera, San Juan Portalea, Arresi kalea, Tala, Prantzisko Deuna Atea ...) iraganaldian Bermeo nolakoa zen argitzen diguten argibideak aurkitzeko.
2. Taldeka, «Antzinako Bermeoren» irudia irteeran ikusi genuenarekin erkatuko dugu (bertan egindako argazkiak eta krokisa ere izango ditugu).



Igartzen diren aldaketei erreparatu eta horien alde positibo eta negatiboak komentatuko ditugu.

- 100 urte barru paisaia hori nolakoa izango den imajinatu eta krokis batean irudikatzeko esango diegu. Ondoren, ikusmolde ezberdinak komentatuko ditugu. «Zer neurri hartu beharko lirateke etorkizunean kalitateko paisaia izan dezagun?»

## 2. jarduera: Paisaiaren alde lanean

(30 minutu)

Taldeka, aztertu dugun paisaia hobetzeko moduei buruzko txosten labur bat prestatuko dugu. Txostenean, har litezkeen neurri batzuk aipatu ahal dira: ikusizko inpaktuak murriztu edo zuzentzeko neurriak, lurraldearen antolamendua, etab.

Proposatutako neurriak komentatu eta guztien iritziz egokienak direnak aukeratu ondoren, eskudun agintariei bidali ahal dizkiegu geure ondorioztapenak.

## 3. jarduera: Urdaibai eta bertako paisaiak ikertzen

Interneten erakargarritasuna eta ahalbideak aprobe txatuz, Urdaibaiko paisaien gestioari buruzko ikerketa txiki bat planteatu ahal dugu. Lanerako gidoi gisa, honelako galderak egingo ditugu aurretik:

- «Nork gestionatzen du Urdaibai?»
- «Zona bat baino gehiago dago? Eta eskumenak?»
- «Zer babes mota du Urdaibaik?»
- «Zer lege, arau edo tresnak babesten dute?»...

Horren ostean, Udetxea (Urdaibaiko Patronatuaren egoitza, Gernika-Lumon) bisitatu ahal dugu, informazioa osotu, zalantzak argitu eta abarrerako.



# Lan fitxak eta Material osagarria






Lan fitxak



# Aurkitu falta dena







Jarrerak






# Ea aurkitzen duzun!

5

LAN FITXAK



**Bilatu paisaia honetan ondoko «gauza» hauek:**

**Oso berria den zerbait**

.....

.....

.....

.....

.....

**Oso zaharra den zer edo zer**

.....

.....

.....

.....

.....

**Heze dagoen zerbait**

.....

.....

.....

.....

.....

**Gau honetan egongo ez den zer edo zer**

.....

.....

.....

.....

.....

**Ikusi ezin dugun baina egon badagoen zerbait**

.....

.....

.....

.....

.....

**Mugitzen den zer edo zer**

.....

.....

.....

.....

.....

**Egunean zehar aldatzen den zer edo zer**

.....

.....

.....

.....

.....

**Gutxien gustatzen zaizuna**

.....

.....

.....

.....

.....

**Gehien gustatzen zaizuna**

.....

.....

.....

.....

.....

**Lekuz kanpo dagoen zerbait**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

## Paisaiaren krokisa

Hementxe daukazu ikusten ari garen paisaiaren krokisa:

1. Orientatu krokisa eta seinalatu puntu kardinalak.
2. Marraztu falta diren osagaiak.

Kolorea	Giroa
<input type="text"/>	Artadia
<input type="text"/>	.....
<input type="text"/>	.....
<input type="text"/>	.....



# San Kristobalen gertatuko aldaketak

Paisaia aldatuz  
doa historian zehar.

## Irakurri testu hau...

«... bertako zarrena dan Rufino Arrospide, 86 urtekoak diñoskunez, Morga'ko kontratista batzuk –ez diñosku noiz- padura edo antxietak irabazi eutsoezan itxasoari, portu iza-tea galdu ebanean.

San Kristobal auzua, ain zuzen be, eleizate ontako antxinako atraka lekua zan, antza danez, itxas-ontzientzat. Juan Solai'k kontetan dausku, ots, Alasbiñe baserriko jaubeak, “zelan etorren miñerala gabarretan” errendari etxean artuta; antxe artu oi zan eta pixutu inguruko miñetako ekarria.»(\*)

## ... eta erantzun:

■ Portuaren arrastorik ikusi genuen irteeran? .....

.....

■ Badakizue nola irabazi zioten lurra itsasoari?

.....


.....

■ Badago sistema horren arrastorik San Kristobalen?

.....

■ Badakizue nondik etorri zen zapaldu genuen hondarra? .....

.....



(\*) Gondra y Oraá-ren 1990eko lanetik hartuta.

# Galdu ez gaitezzen




## Begiratu Urdaibaiko mapari eta...

Aurkitu zeure herria eta bisitatuko dugun lekua.

Leku horretara joateko, nondik pasatuko gara? Aipatu herriak eta seinlatu ibilbidea.

Egin mapa txiki bat.



- Zer garraiobide erabiliko ditugu? .....
- Norantz (iparralderantz, hegoalderantz,...) joan behar dugu? .....
- Mapa erabiliz (1:25.000 eskalako), kalkulatu ondorengo distantziak (km-tan):
  - ✓ Ikastetxea ➤ Gernika: .....
  - ✓ Gernika ➤ Mundaka: .....
  - ✓ Ikastetxea ➤ Bermeo: .....
  - ✓ Bermeo ➤ Mundaka: .....
  - ✓ ..... ➤ .....: .....
  - ✓ ..... ➤ .....: .....

GUZTIRA: .....

# Nolakoa ote da leku hori?



Markatu edo gehitu behaketa egingo dugun tokitik, zure ustez, ikus daitezkeen osagaiak (erabili maparen legenda, lagungarri gisa).



ERLIEBEA	FLORA - FAUNA	ERAIKITAKOAK (GIZAKIEN PRESENTZIA)
<input type="checkbox"/> Mendia	<input type="checkbox"/> Pagadia	<input type="checkbox"/> Baserria
<input type="checkbox"/> Ordoki edo lautada	<input type="checkbox"/> Pinudia	<input type="checkbox"/> Errota
<input type="checkbox"/> Hondartza	<input type="checkbox"/> Artadia	<input type="checkbox"/> Eliza
<input type="checkbox"/> Itsasadarra	<input type="checkbox"/> Lezkadia	<input type="checkbox"/> Zubia
<input type="checkbox"/> Padura	<input type="checkbox"/> Garia	<input type="checkbox"/> Errepidea
<input type="checkbox"/> Labarra	<input type="checkbox"/> Ubarroia	<input type="checkbox"/> Hiria
<input type="checkbox"/> Amildegia	<input type="checkbox"/> Usoa	<input type="checkbox"/> Itsasargia
<input type="checkbox"/> Irla	<input type="checkbox"/> Balea	<input type="checkbox"/> Fabrika
<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....
<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....
<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....
<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....	<input type="checkbox"/> .....

**Behatuko dugun paisaia imajinatu eta deskribatu laburki:**

.....

.....

.....



# Paisaiak jasaten dituen inpaktuak




Gizakiak hainbat aldaketa eragin dio bere inguruneari, ongizate handiagoa lortzeari begira. Aldaketa batzuek eragin onuragarria dakarkiote inguruari eta beste batzuek, aldiz, eragin kaltegarria. Eta badira aldaketa batzuk, pertsona batzuentzat onak eta beste batzuentzat txarrak izan daitezkeenak.

Begiratu eta saia zaitetz zeure behatokitik antzematen diren inpaktuak identifikatzen.(\*)

IKUSTEN DUGUNA	PAISAIA DUEEN ERAGINA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harrobia mendian</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldaketa erliebean.</li> <li>- Ikus inpaktua.</li> <li>- Landaretzaren galera.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- .....</li> </ul>

(\*) Irteeraren ostean, ikasgelan, berriro landuko ditugu inpaktu hauek, besteak beste, beharrezkoak diren ala ez eta alternatibarik dagoenentz aztertuz.

## Hona hemen hiru paisaia



■ Zein duzue gustukoena?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

■ Zein aukeratuko zenukete bizitzeko?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

■ Eta oportetarako?

.....

.....



.....

.....

.....

.....

# Profil topografikoa Lumo - Burgogana



# Paisaiaren osagaiak identifikatzen



## ABIOTIKOAK

### Morfologia

(lautada, mendia, hegala...)

.....

Gauden lekuaren **altitudea**:

.....

Inguruaren altitude gorena:  
(mapa kontsultatu)

.....

### Lurzoria

(harritsua, emankorra, hondar-tua...)

.....

.....

**Maldak** (handiak, txikiak)

.....

.....

**Higadura** (agerikoa ala ez)

.....

**Ura** (lakua, ibaia, itsasoa...)

.....

¿Garbi ala kutsaturik dago ura?

.....

### Haize nagusiak

(Bibliografia kontsultatu)

.....

.....

### Prezipitazioak

(Bibliografia kontsultatu)

.....

.....

Inguruko batez besteko **tenperatura**

(bibliografia kontsultatu)

.....

.....



## BIOTIKOAK

### Landaretza

(oparoa, urria...)

.....

### Landaretza mota

(basoa, belardia, laboreak, oihaneztapenak...)

.....

.....

**Landare espezie nagusia:**

.....

.....

**Laborantzako espezie ohikoenak:**

.....

.....

### Animalia basati

esanguratsuenak

(bibliografia kontsultatu)

.....

.....

**Ikusitako animaliak**

.....

.....



## ANTROPIKOAK

### Biztanle dentsitatea

(handia, ertaina, txikia...)

.....

**Populatze mota** (sakabanatua, biztanle gune txikiak, hiria...)

.....

**Nekazaritza, abelazkuntza eta basogintzako jarduerak**

.....

.....

**Meategiak, harrobiak:**

bai  ez

Zer ustiatzen da bertan?

.....

**Industria mota**

garrantzitsuenak:

.....

.....

**Turismo azpiegiturak:**

.....

.....

Turismo aldea da?.....

**Komunikazio bideak:**

.....

.....

**Ondare historiko** aipagarria

(elizak, dorretxeak...):

.....

.....

**Eraikin tradizionalak**

(baselizak, baserriak, errota...):

.....


.....

Lumo inguruko mapa

# Lumo inguruko mapa







# Nola erabiltzen dugu lurraldea?

Lotura zuzena dago lurraldearen erabileraren eta ikusten dugun paisaiaren artean. Markatu taulan lurralde honetan garatzen diren jarduerak.

NEKAZARITZA ETA ABEL-TZAINTZAKO JARDUERAK	AZPIEGITURAK	INDUSTRIA ETA MEATZARITZA	HIRIGINTZA	KULTUR, TURISMO ETA KIROL JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Labore lur txikiak / baratzak.</li> <li>■ Labore lur handiak.</li> <li>■ Oihaneztapenak.</li> <li>■ Belardiak.</li> <li>■ Negutegiak.</li> <li>■ Abelazkuntza estentsiboa.</li> <li>■ Abelazkuntza intentsiboa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Mendi-bideak.</li> <li>■ Errepideak.</li> <li>■ Autopistak.</li> <li>■ Urtegiak.</li> <li>■ Portuak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>● arrantza portua,</li> <li>● industri portua,</li> <li>● kirol portua.</li> </ul> </li> <li>■ Trenbide linea.</li> <li>■ Aireportua.</li> <li>■ Linea elektrikoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Industri pabilioi isolatuak.</li> <li>■ Industrialdea.</li> <li>■ Harrobia.</li> <li>■ Meategiak.</li> <li>■ Zabortegiak.</li> <li>■ Industriak edota meataritzako aurriak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Hirigune handia.</li> <li>■ Biztanle gune txiki edo ertainak.</li> <li>■ Eraikin tradizionalak eta isolatuak.</li> <li>■ Urbanizazioak (itsatsiak, familia bakarrentzako etxeak...).</li> <li>■ Interes historiko edota artistikoko eraikinak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Berdeguneak (parkeak, lorategiak...).</li> <li>■ Kanpina.</li> <li>■ Hotel edo apartamentuak.</li> <li>■ Kiroldegiak.</li> <li>■ Hezkuntza edota kultur ekipamenduak (eskolak, museoak...).</li> <li>■ Ingurumen ekipamenduak (interpretazio zentroa, bide ekologiakoak...).</li> </ul>

Nola definituko zenukete paisaia hau? Azaldu zergatik.

Naturala    Landa ingurukoa    Hiri-ingurukoa (hiriaren eta landa inguruaren arteko zona)    Hirikoa

Zeren eta.....

Jardueren arteko gatazkarik sumatzen duzue?: .....

.....



# Aldaketak detektatzen

Paisaia aldatuz doa. Askotan, aldaketa hauek ez dira bat-batekoak, prozesu baten ondorioa baizik. Baina, momentu zehatz batean, prozesuaren seinaleak ikus ditzakegu. Hona hemen argibide batzuk:



1. Mugituta daude lurrak?
2. Ikusten da induskailurik?
3. Etxebizitzak egiten ari dira, garabirik dago?
4. Errepideren bat konpontzen edo egiten ari dira?
5. Motozerrarik entzuten da?
6. Ke usain edo arrastorik sumatzen da?

## Saiatu seinale hauek aurkitzen eta erregistratu taulan

SEINALEAK	ALDAKETAREN PROZESUA
<p>■ Garabia, zarata... ..</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ Zerbait eraikitzen ari dira .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ .....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

- Alde hondaturik (utzitako etxerik, industria pabiloi itxirik...) ikusten da? .....
- .....
- .....
- Zure ustez, handitzen ala txikitzen ari da hiria eskualde honetan? Zergatik? .....
- .....
- .....

# Inpaktuak aztertzen



**Identifikatu paisaian inpaktu batzuk, aukeratu bat eta aztertu gidoi honi jarraituz**

<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>INPAKTUAREN ONDORIOAK</b></p>	<p><b>Ageriko ondorioak</b></p> <p>Airea: .....</p> <p>Ura: .....</p> <p>Landaretza: .....</p> <p>Fauna: .....</p> <p>Biztanleria: .....</p>	<p><b>Ezkatuko ondorioak</b></p> <p>Airea: .....</p> <p>Azaleko urak: .....</p> <p>Lurrazpiko urak: .....</p> <p>Landaretza: .....</p> <p>Fauna: .....</p> <p>Biztanleria: .....</p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>KALTETURI-KO ALDEA</b></p>	<p>Inpaktuak zuzen eragin dion <b>esparrua soilik.</b></p>	<p><b>Eremu zabala</b> ukitzen du, hemendik kilometro batzuetarainokoa.</p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>IRAUPENA</b></p>	<p>Inpaktu <b>iragankorra</b> {</p> <p style="margin-left: 20px;">Aldi luzekoa</p> <p style="margin-left: 20px;">Aldi laburrekoa</p>	<p>Inpaktu <b>iraunkorra</b></p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"><b>ITZULGARRITASUN MAILA</b></p>	<p><b>Itzulgarria:</b> inpaktua eragiten duten zioak desagertuz gero, lehenagoko ingurumen egoerara itzul daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ <b>Arina:</b> denbora laburra behar du onbideratzeko.</li> <li>■ <b>Ertaina:</b> epealdi luzea behar du.</li> <li>■ <b>Gogorra:</b> zuzentzeko neurriak behar dira.</li> </ul>	<p><b>Itzulezina:</b> ezin da lehenagoko egoerara itzuli edo epealdi luzeegiak edota gaur egun gauzatu ezinak diren neurri zuzentzaileak behar dira.</p>

■ Aldagai horiek aintzat hartuz, zer deritzozue aztertutako inpaktuari:


- Arina                       Larria                       Oso larria

■ Zer alternatiba edo neurri zuzentzaile har litezke? .....

- .....
- .....
- .....
- .....

Bermeo inguruko mapa

# Bermeo inguruko mapa





## Nolakoa da paisaia hau?

Paisaia baloratzean honek sorrarazten dizkigun sentsazioak oso inportanteak dira. Zenbait adjetibo erabiliz, hauek adieraziko ditugu. Horretarako behatzen ari garen paisaia egokien definitzen dutenak seinatu.

Besteren bat bururatzen bazaizu, gehitu.

Aparta	Desberdina	Berezia	Zikina
Garbia	Zaratatsua	Etsigarria	Kezkagarria
Argitsua	Atsegina	Dibertsoa	Interesgarria
Usaintsua	Ahaztezina	Goibela	Kaskarra
Ezatsegina	Harmoniatsua	Kirasduna	Legendazkoa
Kolorista	Goxoa	Desantolatua	Irakokitzailea
Bukolikoa	Oroitarazlea	Naturala	Isila
Orekatua	Lasaia	Ederra	Aldakorra
Erromantikoa	Ikaragarria	Ernagarria	Arrunta
Liluragarria	Oldartzailea		

## Atsegin duzu paisaia hau?

Paisaiaren osagaiak baloratzeko, izarrak eta puntu beltzak erabiliko ditugu, gogokoen ditugun osagaiak eta batere gogoko ez ditugunak, hurrenez hurren, adierazteko. Egin zeure sailkapena!

SAILKAPENA	OSAGAIA
★★★★	
★★★	
★★	
★	
●	
●●	
●●●	

**Paisaiaren balorazioa:**

(Bere osotasunean hartuta)

Zer aldatuko zenuke? .....

.....

# Paisaiaren kalitatea (\*)

# 21

LAN FITXAK

Paisaia honen kalitatea «neurtzeko», sei alderdiri erreparatu eta ondoko taulako jarraibideekin bat puntuatuko ditugu:

<b>MORFOLOGIA</b>	Oso mendi-erliebe nabaria, gainerakotik gailentzen dena.	Forma eta tamaina anitzeko erliebea.	Muino leunak, ordokiak... Osagai nabarmengarririk gabekoa.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>LANDARETZA</b>	Landaretza mota ugari.	Mota aniztasun ertaina. Mota bat edo bi nagusitzen dira.	Mota aniztasun urria.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>URA</b>	Garrantzi handiko osagaia da paisaian. Ur garbia da.	Ura dagoen arren, ez da paisaiaren osagai nagusietakoa.	Oso ur gutxi, ez da hautematen.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>KOLOREA</b>	Kolore konbinazio ugari eta biziak, kontraste atseginak.	Kolore eta kontraste aniztasun ertaina.	Kontraste ez-harmoniatsuak, aniztasun urria.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>BAKANTASUNA</b>	Paisaia aparta, eskualde edo lurraldean ezohikoa eta osagai bereziak dituena.	Lurraldeko paisaia berezia, baina inguruko beste batzuen antzekoa. Bereztasun batzuk ditu baina aparteko osagairik gabe.	Lurraldeko paisaia arrunta, bereizgarri gabekoa.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>GIZAKIEN EKINTZA</b>	Eraikitako osagaiak osagai naturalekiko oreka harmoniatsuan daude.	Bat ez datozen osagai batzuk daude.	Osagai batzuk eraikitzean (urbanizazioak, azpiegiturak...) ez da ingurunea kontuan hartu eta nabarmenki desitxuratzen dute.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>

Handia: 30 ta 24 puntu bitarte.

Ertaina: 23 ta 12 puntu bitarte.

Urria: 11 ta 6 puntu bitarte.

**Puntuak, guztira**

**Esleitutako puntu kopuruaren arabera erabakiko dugu paisaiaren kalitatea:**

(\*) San Martín, Sanz, Urbina eta Caño-ren 1998-ko lanetik hartuta eta egokitutako fitxa.

# Paisaiaren ikus hauskortasuna (\*) **22**

Taulan iradokitzen diren erreferentzien arabera, eman balio bat paisaiaren ikus hauskortasuna kalkulatzeko aldagai bakoitzari:

<b>LANDARETZA</b>	Dentsitate urria, lurra ez dago guztiz estalirik. Batez ere zuhaixkak eta belarrak daude.	Dentsitate ertaina. Zuhaitzak daude.	Dentsitate handia. Zuhaitzak nagusitzen dira.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>MALDA</b>	Handia.	Ertaina.	Txikia.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>HOMOGE-NEOTASUNA</b>	Oso multzo homogeneoa. Ia ez da forma eta kolorerik bereizten.	Homogeneotasun maila ertaina.	Oso multzo heterogeneoa. Hainbat forma, kolore eta landaretza mota, ura, eraikinak, harriak eta abar ikusten dira.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>IKUS ARROAREN<sup>(1)</sup> TAMAINA</b>	Handia.	Ertaina.	Txikia.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>IKUS ARROAREN<sup>(1)</sup> FORMA</b>	Itxura luzanga (haizpitartea, oso haran estua, etab.)	Itxura luzanga baina zabala.	Forma borobila.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>INTERES HISTORIKO EDO TA KULTURALEKO ERAIKINAK</b>	Horrelako eraikin ugari, biztanle gune txikietan (baserri tradizionalak, baselizak, dorretxeak, elizak...).	Badago baten bat, baina ez dira paisaiaren osagai identifikagarriak.	Ez dira ikusten edo ez dira oso nabariak.
	<b>5 puntu</b>	<b>3 puntu</b>	<b>1 puntu</b>

(1) Ikus arroa: puntu batetik ikusten den eremua

Handia: 30 ta 24 puntu bitarte.

Ertaina: 23 ta 12 puntu bitarte.

Urria: 11 ta 6 puntu bitarte.

**Puntuak, guztira**

**Esleitutako puntu kopuruaren arabera erabakiko dugu paisaia honen ikus hauskortasuna:**

(\*) San Martín, Sanz, Urbina eta Caño-ren 1998-ko lanetik hartuta eta egokitutako fitxa.

# Paisaia eta lurraldearen erabilerak<sup>(\*)</sup>



Aztertutako bi aldagaiak —kalitatea eta ikus hauskortasuna— kontuan harturik, lurralde horrek, bertan giza jarduerak ezartzeari eta paisaiari kalte larririk ez eragiteari begira, agertzen duen gaitasuna aztertuko dugu. Alegia, lurralde horretan zer-nolako jarduketak —erabilerak—O planteak daitezkeen ikusiko dugu.

		KALITATEA		
		HANDIA	ERTAINA	URRIA
IKUS HAUSKORTASUNA	HANDIA	Babes gorena.	Babesa. Oso inpaktu txikia eragiten duten jarduerak baino ez daude baimenduta (adibidez: mendi-ibiliak).	Inpaktu txikia edo ertaina eragiten duten jarduerak baimentzen dira (adibidez: paisaiarekin bat datozen eraikin txikiak).
	ERTAINA	Inpaktu txikia edo ertaina eragiten duten jarduerak.	Inpaktu ertaina eragiten duten jarduerak (adibidez: dentsitate txikiko urbanizazioa).	Inpaktu ertaineko jarduerak.
	TXIKIA	Inpaktu ertaineko jarduerak.	Inpaktu handiko jarduerak ezartzeko aukera (adibidez: fabrikak, zentro komertzial handiak...).	Oso inpaktu handiko jarduerak ezartzeko aukera (adibidez: zabortegea).


Paisaiaren kalitatea eta ikus hauskortasuna kontuan harturik:  
Zer jarduera egin liteke aztertzen ari garen paisaian?

- .....
- .....
- .....
- .....

(\*) San Martín, Sanz, Urbina eta Caño-ren 1998-ko lanetik hartuta eta egokitutako fitxa.



## Bermeoko Ibilbidea



### Ibilbidea:

Lamera Parkea ➤ Kale istua ➤ Ertzilla Dorrea ➤ Ertzilla kalea ➤ Udaletxea ➤ Doniene kalea ➤ San Juan Portalea ➤ Arresi kalea ➤ Prantzisko Deuna Atea ➤ Lamera Parkea.

Ibilbidean ondoren aurkezten dizkizuegun galderei erantzuteko beharrezko informazioa batu beharko duzue. Hori dela eta, komeni da arretaz begiratzea, oharrak idaztea, argazkiak egitea...

## Jarduerak

- Begiratu Lamera parkeko zoruari: badakizue zer harri mota den?, nondik datorren?.....  
.....
- Gelditu apur batean San Juan Portalearen ondoan:
  - Badakizue ate hau zer den? .....
  - Zenbatu inguruetan dauden estoldak eta ikertu zertarako balio duten.  
.....  
.....
  - Estolda horiek, lurpean, ikusten ez dugun baina, biztanleentzat oinarrizkoak diren zerbitzu batzuk behar bezala garatzeko, ezinbestekoa den «hiri» bat dagoela adierazten digute. Saiatu taula honetan osagai «ikusezin» horietako batzuk islatzen eta dagozkion zerbitzua-rekin lotzen.

OSAGAIA	ZERBITZUA
Telefono kableak	- Telefonozko komunikazioa, internet...
- .....	- .....
- .....	- .....
- .....	- .....
- .....	- .....
- .....	- .....

- Atearen alde batetik eta bestetik ikusten den hiri mota ezberdina da, zergatik?.....  
.....
  - Aipatu bi aldeen arteko 5 ezberdintasun: .....
- 
- Abiatu garen tokira itzuliko gara Arresi kaletik eta Prantzisko Deuna Atea kaletik. Nondik datoz izen horiek? .....
- 
- Parkera iritsi baino lehen, Turismo Bulegotik pasatuko gara. Bermeoren zer-nolako irudia «saltzen da»? Zer deritzozu? .....
- 
- Zer osagai historiko bakan aurkitu ditugu ibilbidean?  
.....  
.....
    - Zer garaitakoak dira?.....
  - Zer jarduera mota ikusten dira ibilbidean? zer-nolako establezimendu edo saltegiak daude?  
.....  
.....
  - Ikusi duzue aurririk edo etxe abandonaturik?, Zer-nolako egoeran dago Bermeoko alde zaharra? .....



Material osagarria





Ziklo ezberdinetan proposatutako jarduerak garatzeko iradokitzen ditugun materialetako batzuk ez dira karpeta honekin batera banatzen, hain kopuru handitan erreproduzitzeko zailtasuna edo garestitasuna direla eta. Baliabide horiek *Material osagarrien maletan* bildu dira eta horren kopiak CEIDAn egongo dira, erabili nahi dituzten ikastetxeei mailegatzeko xedez.

Hala ere, kapitulu honetan gaineratik aurkeztu nahi dizkizuegu *Material osagarrien maletan* bildutako materialak, irakasleok bertan eskaintzen denaren berri zehatzagoa izan dezazuen.

Baliabideak material motaren eta haien helburuaren arabera sailkaturik daude. Honako 5 atal hauek daude:

## 1. Diapositibak eta gardenkiak

### 2. Estatistikak

### 3. Jokoak eta grabaketak

### 4. Laminak eta argazkiak

### 5. Mapak eta planoak

Material bakoitza zer jarduerarekin loturik dagoen errazago identifikatzeko, **Izenburuaz** gain, honako datu hauek agertzen dira kasu guztietan: iradokitzen diren **Eta** eta **Zikloa**, lan prozesuaren barruan bera kokatu den **Urratsa** edo **Saioa** eta jardueraren **Zenbakia**.

Material bakoitzaren erabilera didaktikoa goian, zikloz ziklo, aurkeztutako jardueren deskribapenean iradoki da.



## 1. Diapositibak eta gardenkiak

### Zein da gurea?

(Lehen Hezkuntza. 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen: 1. jarduera)

- Oso giro ezberdin bana irudikatzen duten hiru **diapositiba** eskaintzen dira:  
1. Urdaibai      2. Basamortua      3. Poloa

### Zer ikusten da San Kristobaletik?

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen. 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 1. jarduera)

- Behatuko dugun aldearen diapositiba (itsasadarraren eskuinaldea), landa-lana egiteko jarriko garen tokitik ateratakoa (San Kristobaleko hareatzaren kanpoaldea).

### Ikuspegiaren krokisa, Mundakatik

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 1. jarduera)

- Aztertutako paisaiaren krokisa erakusten duen gardenkia, paisaiaren krokisa zer den azaltzeko eta egin beharreko lana zehazteko proiektatu ahal dena.

### Kontzeptu mapa

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.3. Irteera eta gero: 4. jarduera.)

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 4. Saioa: Baterapena eta komunikazioa; 2. Jarduera)

- Kontzeptu mapa, ikasgelan egiten ikasteko modelo gisa proiektatu ahal dena.

### Lumotiko bistaren krokisa

(DBH. 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 2. jarduera.)

- Aztertutako paisaiaren krokisa erakusten duen gardenkia, paisaiaren krokisa zer den azaltzeko eta egin beharreko lana zehazteko proiektatu ahal dena.



## 1. Diapositibak eta gardenkiak (jarr.)

### Urdaibaiko paisaiak


(DBH. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 1. Saioa: Motibazioa: 1. jarduera).

- Urdaibaiko hainbat toki eta paisaia erakusten duten 12 diapositiba.

### Lekuaren krokisa. Bermeo

(DBH. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Informazio iturriak kontsultatzen: 1. jarduera)

- Lekuaren krokisa, ikasgelan egiten ikasteko eredu gisa proiektatu ahal dena.



## 2. Estatistikak

### Jarduera sozio-ekonomikoari buruzko estatistikak. Gernika-Lumo

(DBH. 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 1. Saioa: Motibazioa: 3. jarduera).

Mapa estatistiko batzuk eskaintzen dira:

- Eskualde-buruen menpekotasun-eremua.
- Biztanleria okupatua: industria eta eraikuntza.
- Biztanleria okupatua: zerbitzuak.
- Biztanleria okupatua: nekazaritza eta arrantza.

### EAEko inportazioak / esportazioak

(DBH. 1. Zikloa; B.2. Irteera: 5 jarduera).

- Mapa estatistikoa.

### Jarduera sozio-ekonomikoari buruzko estatistikak. Bermeo

(DBH. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Informazio iturriak kontsultatzen: 2. jarduera).

Mapa estatistiko batzuk eskaintzen dira:

- Eskualde-buruen menpekotasun-eremua.
- Biztanleria okupatua: industria eta eraikuntza.
- Biztanleria okupatua: zerbitzuak.
- Biztanleria okupatua: nekazaritza eta arrantza.
- Alturako arrantza.
- Baxurako arrantza.



## 3. Jokoak eta grabaketak

### Formak paisaian

(Lehen Hezkuntza. 1. Zikloa; B.2. Irteera: 2. jarduera).

- Paisaian identifikatu beharko diren forma ugari erakusten dituzten laminak.

### Nor naiz?

(Lehen Hezkuntza. 1. Zikloa; B.2. Irteera: 5. jarduera).

- Hainbat animalia eta landare erakusten dituzten laminak.

### Hots paisaiak 1

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen. 2. Saioa: Prozedurak lantzen. 2. jarduera).

- Lau girori dagozkien soinuen grabaketa (itsasoa, herria, basoa eta belardia).
- Giro horiek irudikatzen dituzten laminak.

### Zer multzotakoa zara?

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.2. Irteera: 3. jarduera).

- Paisaiaren hainbat osagai agertzen dituzten txartelak.

### Nor doa norekin?

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.2. Irteera: 4. jarduera).

- Paisaiaren osagaiei buruzko txartel bilduma (Aurreko puntuan aipatutako «Zer multzotakoa zara?» joko-arenaren material bera).
- Paisaiaren osagaien artean ezar daitezkeen erlazioei buruzko txartel bilduma.

### Paisaiaren puzzlea

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.3. Irteera eta gero. 2. Saioa: Baterapena eta komunikazioa. 1. jarduera).

- «Paisaiaren puzzlearen» oinarria eta pieza zuriak egiteko eredu.
- «Paisaiaren puzzlea» eginda agertzen duen lamina, eredu gisa.

### Hots paisaiak 2

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen. 2. Saioa: Prozedurak lantzen. 3. jarduera).

- Zazpi girori dagozkien soinuen grabaketa (itsasoa, herria, basoa, belardia, leizea, mendia eta gaua).
- Giro horiek irudikatzen dituzten laminak.

### Ecoterra

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.3. Irteera eta gero: 3. jarduera)

- Lurralde antolamenduari buruzko simulazio jokia (komertzializatuta).

### Atmósferas

(DBH. 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 3. jarduera).

- Hots paisaia sumatzeko eta berarekin sentikortzeko jokia, CENEAMek (Centro Nacional de Educación Ambiental) argitaratua. Honako materialak biltzen ditu:
  - Hamaika girori dagozkien soinuen grabaketa (lurreko leizea, aintzira, itsas leizea, itsas labarra, herria, muinoa, baso irekia, baso itxia, gaua, landazabala udan eta belardia).
  - Giro horiek irudikatzen dituzten laminak.

### Gernikako saihebidia

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 3. Saioa: Gatazka bat aztertzen: 1. jarduera).

- Gernikako saihebidearen proiektuari buruzko simulazio jokia.

### Paisaia aldakorrak

(DBH. 2. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 1. Saioa: 1. jarduera)

- Jokoak bi puzzle ditu eta ingurumen gestio zuzenaren edo okerraren ondorioak planteatzen ditu.



## 4. Laminak eta Argazkiak

### Urdaibai gure aitaita-amamen garaiari

(Lehen Hezkuntza. 2. Zikloa; B.3. Irteera eta gero. 1. Saioa: Paisaian gertatutako aldaketak. 2. jarduera)

– Urdaibaiko hainbat lekuren argazki pareak (antzinakoa eta gaur egungoa) agertzen dituzten laminak.

### Zer ikusten da Mundakatik?

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 1. jarduera)

– Mundakako Goiko Talatik ikusten den paisaia erakusten duen lamina.

### Non dago aldaketa?

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.2. Irteera: 4. jarduera).

– «Mundakatiko bista» izenburuko paisaia aldatuta agertzen duten laminak. Horietako bakoitzean zerbait aldarazi, erantsi edo ezabatu da.

### Lumo inguruaren airetiko argazkia

(DBH 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 1. Saioa: Motibazioa: 3. jarduera).

– Lumo eta Lumotik ikusiko duguna erakusten duen airetiko argazkia.

### Lumotiko bista

(DBH. 1. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Prozedurak lantzen: 2. jarduera)

– Lumotik ikusten den paisaia erakusten duen lamina.

### Zein da giltza?

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 1. Saioa: Paisaian gertatutako aldaketak: 1. jarduera)

– Argazki pareak agertzen dituzten laminak. Argazki biak toki berarenak dira baina batetik bestera aldaketaren bat ikus daiteke.

### Gernika-Lumoko paisaiaren bilakaera

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 1. Saioa: Paisaian gertatutako aldaketak: 2. jarduera)

– Inguruko paisaia une historiko ezberdinetan agertzen duten 4 lamina.

### Urdaibai margolanetan

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 2. Saioa: Adierazpena eta interpretazioa: 1. jarduera)

– Inguruko artistek Urdaibaiko paisaiez agertutako ikusmolde ezberdinak erakusten dituzten 8 laminako sorta.

### Bermeo inguruaren airetiko argazkia

(DBH. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Informazio iturriak kontsultatzen: 2. jarduera)

### Antzinako Bermeo

(DBH. 2. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 2 Saioa: Pasaiaren alde lanean: 2. jarduera)

– Bermeoko XX. mendearen hasierako bista orokorra erakusten duen lamina.



## 5. Mapak eta planoak

### Urdaibaiko mapa

1: 25.000 eskalakoa (Hainbat jarduera)

### Bermeoko planoak (5 ale)

(DBH. 2. Zikloa; B.3. Irteera eta gero: 2. jarduera).

### Mundakako planoak eta argibideak kokatzeko txantiloia (5 ale)

(Lehen Hezkuntza. 3. Zikloa; B.2. Irteera: 6. jarduera).

### Gernika-Lumoko maketa

(DBH. 1. Zikloa; B.3. Irteera eta gero; 5. Saioa: Gernika-Lumoko maketa).

- Aldearen maketa egiteko materiala. Maparen kopia bat dago maila bakoitzeko (sestra-kurbei jarraituz), maketa ebaki eta eraikitzeko.

### Paisai mapa. Bermeo

(DBH. 2. Zikloa; B.1. Irteera prestatzen; 2. Saioa: Informazio iturriak kontsultatzen: 2. jarduera).

### Erabilera-gomendioei buruzko mapa. Bermeo

(DBH. 2. Zikloa; B.2. Irteera: 5. jarduera).





Eusko Jaurlaritzaren Argitaipen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 84-457-2129-1



9 788445 721292

Sarpeurra/PVP: 15 €